



Iturria: *Jesus, Maria eta Joserren devocïoa, edo iru persona divino oien eguiazco amorïoa*. Agustin Cardaberaz. Francisco La Lama, 1824.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazJesusMaria.htm>

## **JESUS MARIA, ETA JOSEREN DEBOZIOA**

**Agustin Kardaberaz**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**JESUS MARIA, ETA JOSEREN DEBOZIOA**  
**EDO IRU PERSONA DIBINO OIEN**  
**EGIAZKO AMORIOA**

LURREAN IKUSI ZAN  
ZERUKO TRINIDADERIK EDERRENARI,  
EDO JAINKOAREN FAMILIARIK SAGRADUENARI

JESUS, MARIA, ETA JOSERI  
ANIMEN DEBOZIORAKO,  
JESUSEN KONPAÑIAKO  
AITA AGUSTIN KARDABERAZEK,  
BERE BIOTZ GUZIAREKIN  
ESKEIÑTZEN ETA KONSAGRATZEN DIENA

BEAR BEZELA

TOLOSAN: liburugille D. Franzisco de la Lama-ren etxean.

1824 URTEAN

Toledoko Kardenal Jaunak, eta Sevillako Kardenal Jaunak eun eguneko barkazioak, edo Induljenziak eman ditu bakoitzak, liburutxo onetan oja bat irakurten dan bakoitzean, edo emengo debozio bakoitza egiteagatik.

Orabat nere beste liburuetan irakurte, edo enzuteagatik eun bana eguneko Induljenziak biak eman dituzte.



## SARRERA

### IRAKURLEARI ZERUKO AMORIOA

Gauza jakiña da, edo kristaubak bear duen dotriña erraza Jesukristoren Ama Birjiña, edo Santuen egiazko Debozioa errezo luze, Nobena, eta beste orrelako orazioetan ez dagoela. Zertan dago bada, edo zer da orien Debozia? Egiazko Debozioa da, gure Relijio Santuaren ejerzizio, edo aktu bat gure biotz, edo anima Jaungoikoaren borondate, eta gustoko gauzetara gogo bizi batekiñ daramana: eta gogo santu au iru gauza oietan dago, eta erakusten da.

Lenbizikoa da Adorazioa, edo gure Jaungoikoa, Ama Birjiña edo Santuak, fede bizi, espiritu humil, firme, eta prest batekiñ biotzetik adoratzea.

Bigarrera Inbokazioa, edo biotzez aietara gure estutasun, eta nekeetan oien erremediorako biurzea, eta deitzea, Santuen bitartez neretzat, edo besterentzat nai dedana Jaunari eskatu, eta alkanzatzeko.

Irugarrena Imitazioa, edo Santuak imitatzea, beren birtuteetan jarraituaz, konzienziako garbitasunean, humildade, pazienza, karidade, miserikordia, eta besteetan.

Deboziaren izan geiena, edo guzia irugarren onetan dago, eta onek zure Debozioko Santuai atsegiñik andiena ematen die Aiek egin zutena, zuk egitea, edo Jaungoikoaren borondatea beti, aiek bezela zure estadu, edo bizimoduan zuk egitea lurrean, gero eien lagun ditzoso beti izateko Zeruan.

Kristau asko, beren buruz Debozio, eta errezo luzeak artu, eta ezin kunpliturik, presaka, eta itotzen bezela oi dabiltza; eta berrago diran obligazioai eranzuteko, leku, eta gogo guztia kendu, eta, etsaiak alde orreta tik engañatzen ditu: eta errezo guziak beren gustora egiten ez badituzte, pakerik ez, eta inkietude aundian gelditzen dira. Ez: Jaungoikoak, Ama Birjiñak, edo Santuak orrelakorik ez dute nai. Obe da errezo gutxiago, eta ondo egitea: zure ditxa eztago gauza andiak, eta asko egitean, ezpada, zure eguneroko txikiak ondo, eta Jaungoikoak nai duen espirituarekin egitean. Santu asko bide jakiñ onetatik Zerura joan ziran. Zure errezo luzeen bearrik Santuak ez dute: naiago dute berai deitu, eta zuk bear dezun biotzeko argia eskatzea aien gisan; Jaunaren borondateari, eta obligazioai ondo eranzuteko.

Alere animako debozio, eta amorioa Jaunari, eta Santuai guk erakusteko, Eliza Santak bere orazioetan, zer eta nola egin bear degun, ondo erakusten digu; eta biotzeko gogo, edo afekto santuen señaileak, aoz egiten diran errezoak dira. Señale agiri oen artean probetxu andikoak, eta animen konsuelo betikoak dudarik gabe, dirade Ama Birjiñaren errosario, Jesusen Kalbarioko Pausoak, Aita San Joserren Misterio dibino, gozo ta doloreak; eta orien, eta beste Santuen Nobenak. Oiek ondo egiten badira txit asko balio dute biotzeko debozioa gorde, beroa kanporonz berai erakusteko.

Jesus, Maria, eta Joserren amoriorik gozoena, eta bearren au nolako konsiderazio, espiritu, eta animen irabazi aundiarekin egin bear dan, iruren debozioan erakutsi nai det. Baña Zerurako joia au ondo estimatzeko, lenago ezagutu bear da, eta orren berri eman bear da.



## LENBIZIKOA

### Kalbario, eta Errosarioaren Misterio ezkutatuak agertzen dira

Mundua galtzeko zorian zegoanean, edo pekatuen otzak, eta gaitzak eriotzako arnaseetan zeukanean Jaungoikoaren miserikordia guztiak, bere amoriozko su gozoan Kristauben biotzak irazaki, eta sendatzeko, Zeruko, eta mirarizko erremedio bi, eta aiek bere eskutik bezelakoak, denbora batean eman zituen. Bata, gure aragizko Serafiñ, edo Aita San Franzisko Serafiko humillari bere llaga preziosoak; bestea, Aita Santo Domingo gloriosoari bere Ama Santisimaren Errosarioa eman zionean. Batari mundu guziaren Redenzioko señaileak, Jaunaren Justizia aserrea gurekiko bigundu, eta gozatzeko; besteari, Miserikordiazko Ama maitearen bitartez beraren piedade guztia gugana erakarzeko. Munduaren erremedioak oiek dira: eta zeñ indar, birtute, eta poderio aundikoak diran, berak ondo erakusten dute: obrak dira amore, señaile, eta argumentu seguroenak.

Santu pare au, paregabeako prodijio aundiz mundua bete, arritu, eta pekararien konbersioak egiteko, Jaungoikoaren Ama, Semeak beren Zeruko armaz janzirik bialdu zuten, Batari Ama Birjiñak bere Semearen amabost Misterioak eman ziozkan: eta besteari Jaunak bere bost llagaetan Pasio sagradu guztiko beste amabost Misterio, edo Pausoak. Santo Domingo, eta San Franzisko gloriosoak Zerutik arturikako arma oiekin mundu galdua irabazten asi ziran eta arrezkero, eta oraiñ, eta beti orien Seme Santuak gloria, eta ditxa aundiaz animak irabazten ari dira. Arma oiekin infernuari gerra bizia egiten diote: eta egunero, eta geiago mirarizko debozio oiek biok, bata bestea baño maiteago Eliza Santan animenzat frutu aundi, ederrez egin dira.

Santu glorioso biak beren debozio Relijio Sagradu, ta Seme famatuakin Elizaren kanpo, edo Jardin Zerukoan; Zer lore eder, eta zer frutu gozoak eman dituzte? Zer marabillak? Zer, eta nolako animen konbersioak egin ez dituzte? Baña zer milagro, milagroak, eta alakoak, eta ainbeste Jaungoikoak, eta bere Amak munduan Zeruko beren Adiskide maite biakin egitea; baldin biak leia, kantu, edo enpeñoz bezela, bai obeto laguntzeko, seme santuz bete bazituzten? Begira Aita Santo Domingoren ondoren San Jazinto eder bat, San Pedro Martiri bat, Santo Tomas Eskoletako Aingeru Maisu bat, San Bizente, eta San Luis gure Españiako honra aundi, eta Apostoluak San Antonino, eta ainbeste Aita Santu, eta

orien artean San Pio V. eta San Benito XI., Santa Katalina, Santa Rosa, eta ainbeste Martiri, eta munduaren Maisu, eta Predikadore? O zer Ama Birjiñaren lore, eta frutu ederrak! San Franzisko zorioneko, Jesukristoren imajiña biziari, Zer seme gloriosoak berak eman ziozkan? San Bernardo bere lagun maitea, Doktore Serafiko San Buenabentura, San Antonio Paduako milagrosoa, San Paskual, eta San Diego, Santa Klara, Santa Rosa, Eta zenbait Martiri, Elizako Buru, gizon aundi, eta Maisu Santuak? Ezin kontatu ala. Eta onela Ordena Sagradu, ta fundadore Santu biak, Ama Semeak honratu, eta gloria aundiz bete dituzte.

Santu oiek berriz, eta Aita oien Seme miragarriak Kalbario, eta Errosarioaren debozioaz Zeruko bidean animak sartzeko egin dituzten mirari, kontu, eta paregabeak esatea, Zeruko izarrak kontatzea bezela edo are geiago da. Milla, eta ogeita bi izar aundi omen dira, beste izar txikiakin apainduak. Baña Zeru eder orretako txiki, eta aundi guziak baño ere, Santu bien marabillak geiago, eta aundiagoak dirade.



## BIGARRENA

### Kalbarioko Debozioaren Mirariak

Misterio oien sustraitik asitzen gerala, erraz, eta itz batean, esan diteke, munduan ikusi diran, eta Santuak egin dituzten milagro guziak Kalbarioko gurutze Santuaren birtutez egiñak dirala. Ala dio Aita Ribadeneirak, gurutzea Kalbarioan arkitu zanekeo festan. Baita Jesusen deboziorik gozoren onetan nik arkitzen, eta admiratzen dedan graziatzko miraririk aundiena, eta guzien gañekoa Ama Birjiña Santisima bera da. Onen biotz sagra dua amarez, eta dolorez bere Semearekin txit bat zan: eta arekin batean arantzaz, illtzez, eta lantzadaz, esan diteke, nolere bait gure pekatuak josi, eta erdiratu zutela. Zer milagro aundiagotik bada munduan ikusi diteke, Kalbarioko estazio, eta Pauso guzietan aurrenekoa Ama Birjiña bere Semearen ondoren ibilli, ta, gurutzearen oñean alako biotz firme, eta animo aundiarekin bera ikustea baño? O zer pena gozoak, eta zer amorezko doloreak Ama Semeen biotzetan bien begi ederretatik ere, eta ordu illun triste aietan sortuko ziran! O zer Zeruko lezioak gure Jangoiko, eta bere Amak Kalbarioko bide, pauso, eta Estazioetan gure salbaziorako, eman zizkiguten! Aita Kornelio Alapidek kontatzen ditu era onetan. Ostiral santu eguna, edo gure pekatu guzien barkazioko egun aundia au izan zan: eta egun onetatik bizi izan zan artean, eguneroko, eta betiko Ama Birjiñaren kontenplazio dibinoaren gaia, Kalbarioko estazio, eta dolorezko Misterioak izandu ziran. Nork daki, Ama Semeak baizik, Zer argiak, zer marabillak, zer faboreak, zer erregalo, zer doai, eta zer ditxak Kalbarioko bidean, eta gurutzearen ondoko estazioan, eta bere bizi luzean, Pasio sagra duaren ejerjizio oietan, egunero, orduero, eta puntuero aren Anima santak merezi, irabazi, eta logratu zituen?

Bigarrena, eta Ama Birjiñaren urrango milagroa bezela, pekatari santa, penitente guztien egiazko ispilu, Magdalena penitente zorionekoa izan zan. Onek Kalbarioko ikas bidean, eta Pausoetan, Zeruko Katedra batean bezela, Ama Semeen ondoren, zer amorezko lezioak, zer suak, zer garrak bere biotz samur gozo artan, ikasi, artu, eta josi zituen. Gero ogei, eta amar urtean Eremuan egin zuen penitentzia, eta Kalbarioaren egunero ausmarrean, edo meditazioan, Zer amorezko negar, eta dolorezko suspirio gozoak? Zer Zeruko gose, eta egarriak? Zer irabazi, eta probetxu, esan al baño andiagoak? Argatik, eta ala egunean zazpi bider urte orietan Aingeruak Zeruetara, ango kanta, eta musikak aditzera, jasotzen zuten.

Pekatarari guztioi Jesus maitearen oñetara penitentiako bidea erakutsi ziguna Magdalena Santa, lenena izan zan: an bere pekatuen barkazio osoa Jesukristoren aotik aditu, eta Jaunak berak Santa aundi egin, eta gurekiko Kanonizatu zuen. Kalbarioan berriz gurutzearen oñean, eta Ama Birjiñaren aldean, Apostoluak iges zebiltzala Santa amarez, eta dolorez josirik firme egon zan: eta Jauna ill, eta enterratu ezkerero ere, bildur gabe, amorioak ematen zion balore seguroaz bere Maisua billadatu zuen. Magdale-nari Jesus resuzitatu lenengo agertu zitzaion. Santu, guztien artean Magdalena da Jesukristoren estimatuen, eta laztanenetatik bat eta beraren Esposa guztizko gozoa, Kalbarioko Estazio, eta Misterioetan bere amore ederrari betiko sillua josi ziona.

Irugarren lekuan, gurutze Santuaren, eta Kalbarioko Mirari aundizat San Juan Diszipulu amatua, eta Ama Birjiñaren seme estimatu, onetsia kontatzen det. Onek Jesusen biotzeko Misterio ezkutatuak ikusi, eta gure sabazioko iturriaren ondasunak agertu zizkigun.

Ama, semeen pauso guztien testigu fiel, eta Kalbarioko testamentuan obratu, edo meyoratua San Juan izandu zan. Emen San Simon Zirineo zori, edo suerte oneko gizon Jesukristori gurutzea eramaten lagundu ziona: Ama Birjiñaren aldean ibilli ziran andre santak: eta gure Salbadore, eta Maisuari alako debozio, eta animoarekin Kalbarioko pausoetan jarraitu ziotenak. Zer milagro andiagorik?

Gurutze santuaren mirari ikuskarria izandu zan, gure Jauna Kalbarioko bidean zijoala, eta nekez, odolez, izerdiz eta autsez beterik. Jesusen arpegi ederra garbitzera, aiiñ bizi borroaren arretik sartu zan Beronize, edo Beronika Santa: eta bere Jaungoikozko arpegiaren erregalo, edo prenda, Imajiña eder artan zapi garbian iru aldetara josirik utzi ziona. Miserikordiazko Milagro paregabea izan zan Jesus maitea lapur gaizto birekin Kalbarioko Pausoetan, ibilli, oriek lagun zituela, eta lotsa aundian orien erdian gurutzean bere burua josirik ikusi, eta arako Aita Eternoari gugatik erregutu zionean. Lapur bata, San Dimas, edo Jainkoaren semea ezagutu, konfesatu, eta Induljenzia egunean gurutzean bertan Santu egin, edo salbatu zana. O lapur len infame, eta bertan fama aundiko Santu ditxaz, eta ondasunez bete! O gurutzearen birtutea!

Azkenik Kalbarioan iru ordu aietan milagro aundi asko ikusi ziran, Ebanjelio, edo Fedeak dion bezela. An San Lonjinos Zenturion, Erromako partez zebillena, Jesukristogana biurtu zan: An San Nikodemus: eta San Jose, Jesus ill ezkerero gurutzetik jetxi, eta bere Aldarean bezela, Ama Birjiñaren besoetan utzi, eta debozio aundiaz, Oi berrian sartu zutenak. An beste asko, milagroak ikusi, eta Jaungoikoa ezagutu, ta konbertitu



ziran. Ebanjelioak dion gurutzearen milagro aundia da, Jesukristok linbotik atera zituen Santu asko Jaunaren ondoren, erresuzitatu, eta Jerusalem agertu zirala. Adan gure guzien Aitaren buru ezurra, gurutze Santua sartu zuten lekuan, lurpean omen zegoen: gurutzearen oñetik bigarren Adan, Jesukristoz piztu, edo erresuzitatu, zezan. Eta onela Santuak kontatzen dute: Eta Aita Korneliok dakar guzia.

Oriek dira Kalbarioko, edo Jesus kruzifikatua ill zaneke milagroren batzuek. Baña gure Salbadorea Zerura igo ezkeroko guziak, nork kontaditzake?

Alaere gaurko Santu miragarriaren marabillarik aundiena kontatu gabe ezin utziko det. Au eskribitzen dedan eguna, San Franzisko gloriosoaren eguna bera da. Jesus gugatik ill ezker, milla, eta berreun urterontz zijoan eta Kristau geienen biotzak illotzak bezela zeudenean, Jesusen biotzeko amorean guztiak berriro irazaki nai izan zituen, eta orretarako sekulan ikusi etzan Zeruko marabilla, edo prodijio bat, bere paretik lurpean ikusi ez duena, egin izan zuen. Baña, Non, edo norgan? gizon Serafin, edo Franzisko Serafikoagan.

Gizonen artean berekiko txikiena, eta gurekiko guzien artean aundia; bada Jaungoikoren begietan egiaz aiiñ aundi seinalatua izan zan. Askotan gogoratzen zat, eta guztioi bear zagu, eta ezin gogora diteke, Jesukristoren humildade, eta amorioa, Santu onetan, Zeruko eskolan bezela, ikusi, eta ikasi gabe: lezio alde guzietara miragarriak eman zizkigun. Gure argizko argaltasuna aiiñ gora, eta aiiñ altu igorik, ikusi, eta nik ez dakit zerzaz geiago admiratu edo Franziskoren humiltasunaz, edo aren amorezko altutasunaz: Gauza ziertoa da, batak, eta besteak leia santu, eta pelea biziak Zeruko Serafin eder au lurpean Jaungoikoren eskuaz gure ejemplo, eta deboziorako ala moldatu zutela.

Eliza Santak San Buenabenturarekin dio, Franzisko humilla ill, edo Zerura igo baño urte biz lenago, barau, eta oraziozko garizuma Aingeru San Migeli ateratzen Alborniako mendian zegoela, Irallako gurutze santuaren festarontz, Franziskoren biotz humilla bere amorezko egoakin Jaungoikoagana orazio beroan ariñ igo zan: eta Serafin eder gurutzearen josi bat agertu zitzaion, eta bere biotza argizagia bezela, beraa, amorez, eta lastimaz katibutu zion. Orduan gure Jesusen amorean Kalbarioan borraroen tormentuakin bere gorputzean eraman, eta sufritu zuena, Serafin llagatu orrek San Franziskoren gorputz ditzosoan egin zuen. Bost sugar argi bizi, amorezko saetak bezela, bialdu, eta Jesus maitearen bost llagak egin ziozkan.

Franzisko guzia sutegei bat egin zan: eta gure Redentorearen amore suak, eta garrak Santuaren biotza artu, eta zorioneko molde onetan bost llaga preziosoak amore dolozeko, eta dolore amorezko milagrosoarekin gorputzean atera, josi, eta agertu ziran: eta Santu aundi, pobre, aberatsa, zenbait eta honratuago, anbañ humillago: len bere animan Jesus kruzifikatuaren Ispillu bizi, eta anz egin egiña zana, gorputzean ere beraren erretrato bizi, edo imajiña eder eguñik menditik jetxi zan. O amore portitzaren lanik miragarriena! O milagro begiz ikusi dan arrigarriena! O munduko biotz epel, edo otzen Zeruko berogarri, Jaun kruzifikatuak guri emana!

Au da gurutze Santu egunean, edo aren festarontz Franzisko humillagan egin zan milagroa, baila len, eta gero marabilla aundiz betea. Eta gure probetxurako zerbait esateko, fabore seinalatu ori artzeko, Santua nola Jaunak prestatu zuen, bere seme maite Doktore Serafiko San Buenabentura adi dezagun. Santu onek dio eze, Aita San Franzisko orazioan jarri baño len, Jaungoikoak esan ziola Ebanjelioko liburua idiki zezala, eta esango ziola Franziskogan zer nai zuen. Aldaretik liburua artu, eta bere lagun bati eman zion, idiki zezala. Iru bider onek idiki, ta iruretan Jaunaren Pasio edo kalbarioko pausoak irten ziran, eta Jaunaren milagrozko faborenen bat artu bear zuela, Santuak ezagutu zuen, eta bestetan baño ere debozio aundiagoaz orazioan jarri zan.

Orduan Serafin amorezko argi aderez betea distiatzen guztia, eta egaka Santuaren begietara etorri zan, baño guziz ikusgarria. Sei egoa zituen: orien artean Serafin irazaki orrek zeukan gizon kruzifikatu bat, edo esku, eta oñak ilzez gurutzearen josiak: onen gañera egoa biak gora igitzen ziran: beste biak gorputza estaltzen zuten, eta beste biak botatzeko zabaltzen ziran; eta onela begira zegoela Santu Serafiko onen gorputzean, eta era, eta molde artan Jaunaren bost llaga sagraduak josi, eta agertu ziran. Santu prezioso onen esku, eta oñetan zeuden aragi gogorrezko iltzeak beren buru biribill beltzakiñ, esku gañetan, eta oiñ orrazietan: Puntak berriz luzeak beste aldera igaroak, eta an martilluz makurtu, eta errematxatuak bezela: Eskuieko aldean kostaduko llaga, arradizagorri baten gisa, eta onetatik odol asko Santuak eman oi zuen eta aiiñ ugari, non eta oial, edo zapiak, eta tunika ere busti oi zituen.

Arrezkeroko urte bietan Zeruko gizon Serafiko, edo lurreko Serafin Franzisko nork daki nola bizi izan zan. Jaunaren seña, eta joia prezioso aiekiñ bere burua ikusi, eta zerutarrari bezela begiratzen zion, andik aurrera, onen arima amorez Zeruan bizi zan; eta gaztea bazan ere, amore portitzak aiiñ estu, aiiñ bero, eta aiiñ biziro artu zuen, non, eta aren gabak, eta egunak beti nekez, doloz, miñez, suspirio, eta deadarrez, amore



gozoaz urtu desegin, eta beti bizitzeko, ill arteraño izandu ziraden. O Kalbarioko milagro bizia! Berrogei, eta bost urtekoa, Santua ill zan, eta oietatik ogei urtean Jaunari bere biotza agindu ezker, ainbeste marabilla berak, bere Relijio milagrosoak, bere Seme Santuakin egin zituen, eta beti egiten ari da; eta ala andik urte bira, berariaz Aita Santua Asis, Santuaren Errira joanik, solemnidade aundiaz Kanonizatu zuen.

Aita San Franzisko Zerura zaneko, ta geroko aren milagroak kaburik ez dute: Bere llaga Sagraduen insigniak estali, eta gordetzeko alegin guziak egin zituen, bizi zala; baña ill eta bereala agertu, eta patenteak egon ziran, eta eziñ kontatu ala jende erriko, eta kanpoko etorri, eta debozio aundiaz ikusi, eta adoratu zituzten. Gorputz Santua eraman zuten Ama Santa Klararen Konbentuko Eleizara, eta Santak bere Monjakin llaga sagraduak debozio, eta negar aundiakin adoratu zituzten. Kanonizatu, eta andik urte bira Asisko Konbentuan Santuari Eliza bertia egin zioten, eta Franziskoren gorputz sagradua an sartu zuten.

Baña andik irurogei eta amabi urtera marabilla guzien koroa Franzisko humillari gure Jaungoikoak eman zion. Denbora onetan Aita Santu bide zan Nikolas VI zeña lenago San Franziskoren Semea, eta Relijiooko Ministro Jenerala izan zan. Deseo aundi batek oni eman zion Aita San Franziskoren gorputz sagradua ikusteko, eta berekiñ Kardenal bat, Obispo bat bere Sekretarioa, eta Aita Guardiania txit isillik gau batean artu, eta bostak Santua zegoen lekuronz joan ziran: Bobedan sartu ziran, eta billatu zuten Zeruko ondasun, edo Korputz Santua: Poz aundiarekin ikusi zuten, Aita santuak gau artan bere lagunakin zer egin zuen, gero jakiñ zan; eta ezkutuan luzaro egon zana Kardenalak bere eriotzako orduan bere adiskide aundi bati agertu zion; eta Santuaren historiak dionez, onela kontatu zion:

*«Gauza mirari aundikoa zan gizon ill baten gorputza, zegoan bezela edo era artan ainbeste denboran egotea; bada zutik, eta zuzen zegoen, eta ez batera, eta ez bestera arrimaturik.*

*»Befjak, persona bizi batenak bezela, irikiak zeuzkan, eta zeruronz zer bait altxatuak ere, edo modu onean.*

*»Gorputz guztia osorik, eta ustel bage zegoen, zuri gorria, bizia balego bezela.*

*»Eskuak habituaren mangetan estali, edo sartuak, eta bularraren aurrean, aren semeak oi duten gisan.*

*»Aita Santuak, au ikusi, eta erreberenzian, eta debozio aundiarekiñ belauniko jarri zan, eta oñaren aurrean zeukan habitua jaso, eta berak, eta an geundenak ikusi genduen, oiñ Santu artan nola zeukan bere llaga odol berri, edo aiñ freskoarekiñ, nola gorputz bizi batean orduantxe burniaz egiña bazan.*

*»Beste oña ez gñion ikusi, zergatik habituaz estalia, eta au bere oñaren azpian sartua, edo artua zeukan.*

*»Aita Santuak eskuak agertu zituen, eta aietan oñean bezela, llagak ikusi gñituen: eta eskuetan, eta oñean, muñ egiñ gñion.*

*»Aita Santuak eskui aldera begratu, eta habitua idikia ikusi zuen, eta kostaduko llaga aiñ berria, eta freskoa, nola besteak.*

*»Llaga onetan, eta Santuaren aoran Aita Santuak bakarrik (ez guk) muñ egiñ zion, eta bere biotzean ainbeste debozio, eta santidade gozo sentitu zuen, non, eta marabilla bat zan kanporonz erakutsi zuena.*

*»Azkenik ainbeste konsuelo, eta alako suabidada anima, eta gorputzean giztiok artu genduen, eze gau guztia igaro zanik ere begratzen, edo uste ez genduen».*

Mirari aundi au kontatu, eta Kardenal ditxoso ori ill zan. Onelako milagrorik munduak sekulan ikusi eztu, eta bost esan diran personak, San Franziskoren gorputzean mirari au ikusi, miratu, eta admiratu zuten. Gorputz ori bertan geratu zan, eta arrezkero iñork ere ez bire du ikusi: eta Zeruko tesoro aundi ori an dago gorderik: ta bere seme santuak alde bietatik gau, eta egun Jauna alabatzen dute, eta beren Aita gloriosoari honrarik aundiena bere Elizan ematen diote.

Gure erredenzioko señaiek Santuak artu: zituenetik, milagro aundiak egiten Albarniako mendi ditxosotik asi zan; bada lenago txit kalte aundi asko, turmoi, eta arriak egin oi zituen, eta fruta guziak galdu oi ziran; baña llaga sagraduak Franziskok an artu ezker, Zeruko bendizioz mendia bete zuen, eta kalterik geiago ikusi etzan, eta bedeinkatuak bezela lurra bere frutuak emen oi ditu.

Santua ill ezker, Aita Santu orduan zana, duda aundi batean jarri, eta Franzisko bere adiskide zanaren kostaduko llaga, ala ote zan zegoela, Santua bere insigniakin agertu, eta aserre gisan mantxatu zuen, ta han zeukan anpolla, edo onzitxo bat eskatu zion. Aita Santuak ori eman, eta Franziskok bere kostadu au idikia erakutsi, eta aren odol fresko zerionaz bete, eta biurtu zion: Eta Aita Santuak, esan degun bezela, Santua ill, eta bigarren urtean Kanonizatu zuen: Eta onela bere llaga sagraduakin beste milagro aundiak egin izan ditu, Santo Domingo, eta San Franzisko beren relijioakin mundura etorri baño len, Abad Joakin famatuak Veneciako San Markos Elizan, Santu biak beren habituakin, eta Franzisko bost llagakin pintatu zituen.

Kalbarioko debozioa dutenezat ejemplo, eta lezio ederrak dirade oiek. Gure Redentorea an ill zanetik beti Kristaben artean Erri Santua, eta Kalbarioko estazioen debozio txit aundia izandu zan: eta txit asko Jerusalena joan oi ziran, eta askok boto egiñik, pauso sagradu aiek ibilli, eta



bisitatzeko debozioa artu, eta egin zuten, Santu askoren bizitzetan au ikusten degu, Jakiña da beste Jaun, edo Kaballeroen bisita santua: leku sagradu aietara joan, eta debozio aundiaz konfesatu, eta komulgatu, eta Kalbarioko estado guztiak ibilli, eta Jesus Zerura igo zan Olibeteko mendian amorez urtu, eta, desegin, eta esan zion: Jauna, zure Pausoetan, eta zure ondoren ibilli naiz: Ez daukat, non zu lurrean billatu, ez bada Zeruan: emen zu Zerura igo ziñan, nik or arkitzeko. Zerura begiak jaso, eta amorioz irazaki, eta esan zion, Nere Jesus: Jesus nere amorea; eta onetan illik gelditu zan. Eta biotza amorez erdi bi eginik arkitu zioten. O zorioneko Jauna!

Beti Aita San Franziskoren Seme debotoak leku Sagradu oriek, eta sepulkro Santua, infielen artean ere, beren Zeruko Patrimonio Serafikoa bezela, edo beren Aitaren erenzia, ondasun preziosoa gorde izan dute. Orain ere eta gure alde oetatik ere beren debozioz Relijioso asko Jerusalem joaten dira, Kalbarioko leku, eta pauso santuak bisitatu, eta an luzaro egon, eta bizitzera. Nik nai nukeana da, au ezin dutenak, gizon, eta andre eri, eta oaturik daudenak ere, besterik ezpada ere beren etxe, edo dauden lekuan, Estazio oriek, edo bisita au ondo espiritu, ta egiaz egitea.

Estazioak egoera esan nai du: eta egoera au pauso Dibino orietan soseguz gelditu, eta debozioaz pensatzea da: gure ondoren, edo billa Jau-nak eman zituen pausoak, eta gure animak ari zenbait amore, eta dolorezko nekeak kosta zitzaizkan ondo pasatzea. Gero ematen ditudan Konsiderazio, eta orazioak batek askori ondo irakurri, eta bakoitzak bere biotzean Kalbarioro bisita, eta debozio au txit ederki egin dezake; eta onela egiten bada iñor ere ezin dagoke bere animan probetxu, eta irabazi aundi bat aseguratatu gabe; Bada Jaunaren gurutzeko Eriotza gure bizitza da, pekatuen erremedio, eta gure salbazioko bide segurua: Eta ori bera da Ama Birjiñaren Errosarioko Misterioetan, eta egiazko orien debozioan degun Zeruko ditxa, baldin soseguz, biotz onaz, fede, eta espirituarekin egiten bada; eta orren gañean oraiñ itz egin nai det.

## IRUGARRENA

### Errosario Santuaren marabillak

Jaungoikoaren ama miragarri, edo Zeruetako Erregiñaren egun alde guzietara aundia; eta Ama Birjiñaren Errosarioko, Jaungoikoaren Misterio guztien Zeruko ondasunez beterikako solemnidadea, gaur, edo ditxa aundiaz nik au eskribitzen dedan eguna da, pensatzen nago, gaur, eta onelako Errosarioko egunetan Zeruko, eta lurreko Erregiñari Aingeruak, eta gizonak ematen, eta predikatzen diozkaten alabanzak, Zerukoak, lurrekoak baño obeto, baño han, eta emen kaburik ez dute, eta arrazoi aundiarekin; zerren Ama Santisimaren Errosarioko faboreak neurri, eta konturik ez dute.

Gaur errosario Santuaren birtutez, bere Semearen, eta beraren enemigoen kontra Ama Birjiñak egin dituen fabore, eta eman dituen bitoria gloriosoak predikatzen dira. Gaur San Pio Quintoren denboran Lepantoko itxasoan Turkoen kontra Don Juan de Austriak Errosarioaren bidez irabazi zuen milagrozkoko batalla, eta beste orrelako marabilla asko munduari Birjiña Amaren alabanzan kontatzen, eta predikatzen dira; eta orregarik oriek guziak gauza jakiñak dira. Nik oraiñ Ama Santisimaren Zeruko debozio onek pekatarien erremediorako egiten dituen milagro, eta fabore batzuek kontatu nai ditut, eta lenago Santuen debozio, eta ejemploak.

Eta onetatik asitzen generala, gure Euskaldunenzat, asko da jakitea, gure mendi tarteko Santu biak, edo Aita San Ignaziok, eta Aita San Franzisko Jabierrek Errosario santuarekin iduki zuten fede, eta debozioa. Goizero Aita San Ignaziok Jaungoikoari Ama Birjiñaren eskuetatik bere biotza, eta obrak agindu era lenengo egiten zuen ejerzizioa, edo gauza zan, bere biotzeko debozio guziarekin errosario santua errezatzea. Zer ejemplo ederragorik, eta zer Zeruko ejerzizio oberik Ama Santisimari zor gozo au goiz, edo len baño len onela pagatzea baño? Jesusen konpañiako Aita Teofilo Rainaudo jakinsuak dio debozio guztien Erregiña Errosario santua dala: Zeruko Erregiñari ematen zaion doai dibinoa.

Errezo guztien Erregiña bezela, Errosarioa Indietara ango apostolo San Franzisko Jabierrek berekin eraman zuen; eta ainbeste milla animari erakusi, predikatu, eta ezin kontatu ala milagro aundiakin konfirmatu zien. Errosarioa predestinatuen marka, eta Zeruko atearen gilza bezela zeukan bizitzan, jesuita gazte, Juan Bermans Ama Birjiñaren adiskide maiteak, eta ori eskuetan zeukala ill nai izan zuen. Santu oiek berak Erro-





sario santuaren bidez Zerutik artu zituzten erregalo eta faboreakgatik, guziaz orazioen Erregiña au enkargatzen zien.

Aita Antonio Vieira famarik aundieneko, eta birtute aundiagoko gizona, eta munduko predikadoreen artean bere parerik sekulan bear bada ikusi ez duena Errosario santuaren txit deboto señalatua izan zan. Eta ala itxasoetan, nola leorrean bere ainbeste biaje, eta peligro ikaragarrietan Ama Birjiñaren Errosarioaz beregan ikusi zituen Zeruko faboreakgatik, debozioen Erregiña au beti predikatzeke botoa egin, edo Ama Santisimari agindu zion: Eta Zeruko Erregiñak lagundurik, onen, eta bere Seme Jaunaren errosarioaren gañean, egei eta amar sermoi mundu guztiak admiratzen dituenak, sekulan iñor ez bezela errosarioko misterio dibinoen deboziorako, doai aundiaz egin, eta predikatu zituen.

Orietatik doktriña aundiko ejemplo, edo milagro batzuek, Santo Domingo gloriosoaren onrarako, eta Errosario santuaren debotoen konsuelorako emen kontatu nai ditut: Eta lenengoa, ta guziz miragarria Aita Vieirak onela kontatzen du. Aita Santo Domingo Aingeru baten gisan animak Zerurako irabazten zebillenean, eta Karkasonan beñi batean Errosario sagraduaren marabillak predikatzen zegoala, gazkiñak zituen gizon triste, edo endemoniatu bat bere aurrera erakarri zuen: Txit furia-tsua zeguen ta bere burua txikitzen zuena, eta katea andi batekin lotuta bazegoan ere, iñolako moduz, eta ez iñork ere ezin iduki, edo sujetatu zuten.

Baña Santu gloriosoak Eskritura Sagraduko, Aingeru kateadunak bezala, katea Zerutik artua, eta segurua; zeña Errosario santua zan, berekin zuen: Ditxa gabeko gizon galdu orri bere Errosarioa bereala lepora bota, eta ikara, eta bisaje izugarriakin sujetatu zan. Arako Ama Birjiñaren kateaz sosegatu zanean, Santua, agintaria bezela, deabruari galdetzen asi zan, eta au bere gogoaren kontra bazan ere, eranzuten. Gizonaren barrenean aditzen zan iskamilla, lengoaje askorako barbulla, eta deadar arrigariak; argan zeuden demonioak, txit asko zirala, klaro aditzera ematen zuten.

Lenengo Sto. Domingok galdetu ziona zan: ea gotputz artan zeuden deabruak zenbait ziran, ta zergatik an sartu ziran? Eranzun zioten: Gu gera amabost milla demonio, eta Jaungoikoak agindurik gizon au guziok atormentatzen degu, zerren Errosario santuaren etsai, eresi, blasfemo bat izandu dan; eta Fr. Domingok predikatzen duen debozio onen kontra gorrotoz beterik, eta txit gaizki itz eginaz, anima galdu askoren konbersioa eragozten zuen. Santuak estuago artu, eta esan zion: Ea amabost milla kontatuak zergatik ziran? domonioak esan zuten: zerren Errosario-

ko amabost misterio sagraduen ofensan gaizki esaka eskandalo aundian ibilli dan. Gure gogo guztiaren kontra gizon onetan sartu giñan; zerren au infernuko ministro latz bat genduen, eta onegatik anima asko kondenatu diran, eta irabazi aundi ori guzia galdu degun.

Gauza oiek aditu, eta Elizan zeuden guztiak arritu, eta bildur santuz beterik zeuden; eta enzun zuten, nola gizon galdu ori Santo Domingok erakusten zuen Errosarioaren kontra errebelatu, edo biurtu zan; eta argatik alako tormentu ikaragarriaz, ez demonio batekin, baizik amabost millarekin Jaungoikoak kastigatzen zuela. Onela Errosarioaren etsaia etsai infernukoai Jaunaren justiziak entregatu zion. Errosario santua erraz utzi, eta aztutzen diran nagiak bildurtu ditezen.

Bigarrena Santo Domingok demonioai galdetu zion gauza zan kristauben artean kondenatzen ziranetatik geienak nor, edo zeñi, edo nola ziran; Eta beraren lagunetatik, edo Frai Franzisko bere anaiaren lagunetatik ea infernuan iñor ote zegoen? Oni demonioen artean batekin esan zion: Arako aundi nai, noble, poderoso, aberats erregalatu, ala gizon, nola andreetatik infernuan txit asko ditugu. Oiek beren aundinai, soberbia, banidadea, enbidia, lujuria, edo aragiaren gusto loi, eta beste orrelako pekatu, eta bizioak eriotzaraño berekiñ dituzte: Eta pobreak egiten diezten kalte, eta agrabioak erremediatzen ez dituzte; eta ala diranak, edo geienak infernura dijoaz. Baña jendetxo, nekazari pobre, humilletatik txit gutxi kondenatzen dira: oiek Santuak ez badira ere, beren pobreza neke, billatu bearrak asko okupatzen, eta pekatu askotatik libratzen ditu, eta erraz penitentzia egiten dute.

Zure, eta anai Franziskoren lagunetatik, egia da, infernuan batere oraindik ez degula. Baña gure sareak bota, eta alegiñaz saiatuko gera, eta geldika beren obligazioaz aztu erazo, eta besteen gisan batzuek gure atzaparretarako ditugu. Onen klaro Santuari demonioak itz egin zioten: Eta ai, Zer lotsa Jaunaren juizioan Ebanjelioko egiak, bear bezela, klaro erakutsi bear, eta egiten ez dutenai demonio oriek emango dien! Eta ai aberats galdu bearrak, beren limosnakin billatzen ezpadute pobreak arkitzen duten penitentzia, eta Jaunaren miserikordia!

Irugarrena, Aita Santo Domingok demonioari esan zion: Ea Ama Birjiñaren Errosarioaren gañean ark predikatzen zuena, egia zan? Eta Zeruan bildurrik aundiena nor ematen zion? Eta lurrean guk zeñi geiena honratu, eta amatu bear genduen? Arako au aditu zutenean, amabost milla demonioak txit lazki arazotu, eta deadar, eta garrasi aiñ izugarriak eman zituzten, nunda auditorioko asko arriturik erori ziran. Beren alegiñaz, agirian eranzun nai etzutela, zioten. Baña errosarioaren birtutez



estutu, konjuratu, ta bereala esateko, agindu zien. Orduan arrabia biziaz irazaki, eta guztiai esan zien.

Zeruan zuten etsairik aundiena Jaungoikoaren Ama Santisima zute-la; eta aren poderio, eta anparoa ezbaliz, kristau guziak beretuko zituela. Ama Birjiñaren suspirio, edo nai batek Aingeru, eta Santu guzien erre-guak baño geiago Jaungoikoarekiko balio zuela. Eta bada, gure damu gorri gogorrean badere, egia, eta sekreto ezkutatu au aitortzera obligatzen gaituzte: kristau guziak jakizute, Ama Birjiñaren debozio, eta amorioan fielkiro, edo ondo irauten duenik, batere kondenatzen ez dala; Eta begiaz dakusku, Fr. Domingok predikatzen duan guztia, egia bera dala eta debo-zio orretan firme dagoenik batere galduko ez dala sekula.

Au demonioak esan zuten, ta, gezurraren aita deabrua bada ere egia andi oriek bi milla eta geiagoren aurrean esan zituen. Orduan Santuak, endemoniatu triste ori bere poderio aundiaz guzien erdian zeukala, esan zien: Desdixatu au libratzeko ama Birjiñari Errosarioa belaniko erreza diozagun. Deboziaz guziak Santuarekin asi ziran, eta, o Errosario sagra-duaren poderio, eta grazia! lenengo Ave Maria esan orduko, infernuko sugar beltz illun batzuen figuran, eun demonio gizonaren aotik lasterka irten ziran, bigarren Ave Marian, beste eun eta orrela beste bakoitzean, eta amabost misterioak errezatu, eta amabost milla demonioak aienatu, eta gizona libre geratu zan. Baña ez gorputzean bakarrik, baita animan ere, eta Jaungoikoagana biurtu, ta Errosarioko misterio dibinoen txitezko deboto aundia izan zan; eta ainbeste milla anima an zeudenak konbersio, milagroso ta Zeruko ejemplo argi onekin Jaungoikoa, eta bere Ama Santisima alabatzen, eta Errosarioaren debotoago geldiru ziran.

Onelako marabilla aundi asko orazioen Erregiña Errosarioak animen fabore egin ditu, eta mundu guztian. Zaragozako Eleiza batean Santua predikatzen zegoela, gizon aberats bat, ta abereak baño atsago, pekatuetan sarturik zegoena, ta D. Pedro zeritzana, sartu zan. Aldi biz Santuak aren anima ikusi zuen alako figura beltz itxusi ta demonio askok beste ainbeste katerekin, nola ziran aren pekatuak, tiratzen ziotela. Orduan Santuak, Jaunari eskatu zion, gizonaren anima, estadu triste artan, Elizan zeuden guziaz arren agertu zegiela. O Juizio justu ikaragarria! An ziranai begiak argitu, eta aren anima ikusi, ta aiiñ, ta onen bildur aundiak artu zituen, non da guziak, ezagun, aide, eta bere emazte, eta etxeoak batera, eta bestera argandik lasterka iges egin zuten.

Baña Zeruko katea bedeinkatua, edo Errosarioa Aita Sto. Domingok bere lagunarekin bialdu, eta arekin damuz, lotsas, negarrez eta dea-darrez bere pekatuak esaten Santuaren oiñetara pozez allegatu zan, Ama

Birjiñaren izenean agindu zion Errosarioa egunero debozioaz esan zeza-la; eta gizonak, erri guziak zekuzela, arrigarrizko penitenziak egin zituen, eta Zeruko debozio onen misterioak txit soseguz beti meditatzen zituela, biziera Santu bat, eta milagroak ere egin izan zituen; eta Don Pedro, len pekatari, erri aren beatz topa, edo eskandalo demonioz bete ikusi zute-na, Ama Birjiñaren faborez Eliza artan bertan gero Aingeruen erdian eta Zeruko gloriatzko koroa ipintzen ziotela ikusi zuten.

Irugarren milagroa, Franzian familia bi guztiz poderosoak aserre, gorroto, eta eriotzetan sartu, ta ondatzen ziran. Eziñ inork eta Santo Domingoren arrazoiak ere pakera ekarri zituen, bere espiritu eragille guziak itz egin ta orregatik ere alperrik zan. Azkenik, Zeruko arma segu-ruetara, edo bere Errosariooko sagradura biurtu zan. Ama Birjiñari erre-zatu, eta banaka bakoitza Santuak artu, eta Jaungoikozko debozio au enkargatu, eta esan zien: Errosario santuaren debozioa denbora gutxiko, edo laburra, eta erraza da: eta Jaunaren legea, eta zuen obligazioak kun-plitzeko asko lagunduko dizuena. Santuak esan, eta Ama Birjiñak egin, eta ala ikusi zan. Beñi batean familia aietako Jaunak edo buru biak ustez uste-bage kale batean alkar topatu zuten. Guziak alkar erremedio gabe illko zutela uste zuten. Baña Ama Birjiñaren Errosarioko debozioak bien bio-tzak trukatu bai zituen; eta elkarri barkatu, eta laztanga anaia bezela beti-ko adiskide gelditu ziran, eta amorioz, eta ejemplo aundian txit ondo bizi-tu ziran.

Laugarrena. Orazioen Erregiña, edo eguneroko errosarioa Ama Santisimari zor diogun Zeruko koroa eder bat da. Ama Birjiña Zeruan ikusi nai dezun Kristau ona, begira koroa eder ori egitea, ez geroko utzi: zor gozo au pagatzeko, ez nagi, alper, ajolakabe izan, Ama Birjiña aserratu ez dedin: eta orrelako Andre galdu baten ejemplo tristea adi ezazu. Au zan ez alperra eze baita ere Errosarioaren eriozko etsai, eta Zeruko debo-zio oni gerra bizia beti egiten ziona. Deabruak engañatu, eta aiiñ itxu zegoela, Birjiña Ama gozoak bere abiso bat eman nai izan zion, orretara-ko gaitz andi batek artu zuen. Baña abiso ori asko ez izanik, Miserikor-diazko Ama bera agertu zitzaion, eta argitasun ikusgarri batean erakutsi zion aren Errosarioaren egiazko debotoak Zeruan zuten gloria, eta debo-to etziranak beren animen zer kalte andiak zituzten.

Era orrez gañera, andre galdu orri lotsa andiango emateko, Errosarioa errezatu gabeaz, berak mandamentu guzien kontra egin zituen peka-tu guztiakin Ama Birjiñak arpegian eman zion. Eta ona Errosarioa bear dan debozioaz errezatzea, pekatuetatik libratzeko, ta mandamentuak ondo gordetzeko, Zeruko erremedioa nola dan. Eta au beren animetan



ikusteko, emen gure nekazari onai berriz erregutzen diet Jaungoikoaren Ama maitearen Errosario santua arren afalondora, edo osterako utzi ez dezatela; Deabru txarrak orduan oi duen bezala, logalea, edo infernuko lo pisua eman ez diezaten: beti Zeruko debozio, edo zor gozo au pagatu afaldu baño len: ondo ziñatu, kontrizioko akta egin, batek kontu eraman, onek beti Ave Maria, ta besteak San ta Maria esanaz, gero afaldu, eta lo on bat pakean egiteko.

Bosgarrena. Esan diran milagroak baño andiago baizik ez da, Ama Birjiñak bere Errosarioarekin konbentu batean egin zuen marabilla, eta faborea. Monjak emen txit lasai, ardura bage, eta galdurik bizi ziran, eta erremedioa eman naiagatik, artu nai etzuten. Etxe artan Monja bat bakarra Errosarioaren debota zan, eta onen bitartez, guziaz beren Preladuak Zeruko debozio gozo erraz au txit biotzetik enkargatu zien. O prodijio miragarri, eta Zeruko birtutezko erremedio berria!

Beste bage bereala errosarioa debozioaz errezatzen asi ziran, eta beste bage: denbora gutxiren buruan, Monja guziak trukatu ziran, eta Konbentu guzia Zeru bizi bat egin zan, eta berak Jangoikoagana egiaz bihurturik biotz osoaz reforma eskatu zuten, eta ori aiñ gogotik artu zuten, Jaunaren borondateak nai duen bezela, nun eta orrezaz, eta beren Erregla Santuak ederki gordez santa batzuek egiñik bizi izan ziran. Ama Birjiñaren fabore, ta milagrorik aundiena ejemplo au da. Jainkoak, eta bere Ama maiteak guziori beren argia, ta grazia digutela, bien misterioak Errosario santuan meditatzeiko ondo, eta ori egunero debozioaz errezatzeko, biak oraiñ alabatzeko lurrean, ta gero beti Zeruan glorian. Amen.

Orain Aita S. Joserren gloriak ikustera igaro gaitean. Emen irakurlea kontuan zaude, nola esan ditugun, Jesus onaren Pasio, ta Eriotzako Pauso, eta marabillak Aita Kornelio Alapidek Ebanjelioen gañean txit ederki dakartzien, eta Santuetatik kontatzen dituen; ala berak Santu, eta Doktorerik andienakin, Aita S. Joserren Exzellenzia txit andiak, eta asko kontatzen dira, eta onengandik, eta Aita S. Joserren debozioko liburutxo Salamankan agertu zan batetik onen alabanzak nik artu ditut.

## LAUGARRENA

### Aita San Joserren noblezia Erreal, eta dignidadea

Jaungoikoak bere Seme bakarra Mundu galdua salbatzera biraldu baño len Patriarka Santual agindu zien ta bere profeta askoren aotik aren etorrera leku ta modu askotan agertu zuen. Inñoren, ta ezeren bearrik ez duen Jaunak ta guziaren jabe zanak bezela, bere ontasun aberats eta miserikordiaz beterikako gubanonz zuen borondatea bear bezela kunplitzeko, bere Ama Maria Santisima, Birjiña miragarria onen Esposo Jose Santua, eta Amaren Guraso Joakin, ta Ana zorionekoak lurreko guztien artean señalatu, eta bere familia sagradurako artu zituen. Joakinen izenak Jaunaren prestaera, edo preparazioa esan nai du: Anak Grazia edo Graziakoa: Eta Josek Jaunaren aumetu edo geitzea. Mariak gora goa. Beren misterioa guziak dute.

Mundu galduari pekatuen erremedioa emateko, ta Jaunaren etorrerarekin egiazko biritza berria, ta osasuna guk artzeko, prestaera ta grazia, Ana eta Joakinez aditzen dana, ta ontasun geiago, Jose Santuaren izenak diona, bear ziran. Bitartean, Jangoikoaren gizon, Patriarka era Profeta onak kontatuak izan ziran: eta Aita Eternoaren semeak artu bear zuen bere jatorrizko ta jaiotzako etorkin edo kasta erregetakoan Errege santuak gutxi ta gaiztoak geienak izan ziran. Argatik mundua pekatuakin galzeko, ta iltzeko zorian, eta esperanza guziaren atea itxita bezela zegoeanean, Jaunaren erremedio eta salbazioko atearen giltza S. Jose izandu zan.

Patriarka paregabe onen nobleziarekin Jesu Kristorena Ebanjelista bitan Espiritu Santuak agertu digu. Josegandik gora S. Lukas igoaz Aitatik Aitara, eta Asabetatik Asabetara, guztiak, eta bakoitza banaka kontatuaz, Adan guzien gurasoraño igotzen da. S. Mateo berriz Abrahan santutik bera Jose gloriosoagana jetxitzen da: eta gurekiko munduaren asieratik, belaunetik belaunera jenerazio guztiak zorioneko Jose nobleagana datoz: eta fedeko noblezia edo Idalgirik garbienaren agiria, Patriarka, eta Erregeetarik, sekula guzien Errege bakar Jesukristorenzat, Jose Aita uste-koraño Espiritu Santuak klaro ematen digu: Bai eta noblezarekin batean, Jose maitagarriaren birtute aundien agiria, eta berri onak ere.



*NOR, EDO NOLAKO SANTUA ta zein Jaungoikoaren guztizkoa dan Aita San Jose onen debotoak ondo aditzeko, lenago Jaungoikoaren bere obretako gobernu miragarria begratu bear degu, eta Ebanjelio edo historia dibinotik berri on guzien sustrai seguroa artu.*

Lenengo erregla ziertoa, eta jakiña da: Jaungoikoaren obrak nola alde guzietara kabalak, eta aiñ ederki egiñak diran, ala gizon bat bere gloriako fin alturen batekin artu, ta señalatzen duenean orretarako bear diran eta ondo dagozkion grazia, edo doai ta prenda on guziak, bere eskutik bezela, eta ondo dakiten ta nai duenak bezela ematen diozka. Bada, Jainkoak munduan izandu duen egiteko, obra edo misteriorik dibinoen, altuen ta ezkutatuenerako, nola Jose Santua gizon guzien artean autesi edo eskotzitu zuen, ala ofizio ori Jaungoikoaren gustora bete batean egiteko, bear ziran grazia, doai ta pribilejio guziak eman ziozkan.

Orrela; nor edo zer da Jose Santua? Da Jaungoikoaren Amaren Esposo egiazkoa, ta Jaungoikoaren Semearen Aita ustekoa. Orra zer dion Ebanjelioak, ta orra esan al guzia batean. Gizonen artean Zeruan ta lurrean izango al ditekean dignidade ta ditzarik andieneko gizona eta Santua. Jose zorionekoak bakarrik bai, ta bestek sekulan ez du izandu, ta ez izango pribilejio ori. Ama Birjiñaren Esposo, ta Jesusen Aita ustekoa izatea.

Jainkoa Gizon egindako, edo Enkarnazioko misterioan Fedeko Artikulo jakiña da, Jesukristok Aitari lurrean ez duela, edo gizonaren obra gabe, eta Espiritu Santuaren milagro, ta graziaz Ama Birjiñaren sabelean sartu, ta gizon egin zala. Egiazko Aita du Zeruan, eta egiazko Ama du lurrean. Baña Amaren egiazko Esposoa ta Jesukristoren Aita usteko bakarra Jose Santua da. Ta Aitaren izen glorioso eta paregabe ori Trinitade guziaren gustora Ebanjelio Sagraduak eman zion.

Jaungoikokozko dignidade, edo sustrai dibino onetatik datoz ta berez bezela sortutzen dira Aita S. Joserren beste doai, eta pribilejio esan al baño andiagoak, ta diranak orretan sartzen dira. Baldin Doktore Santu, ta maisuak Ebanjelisten historiatik ateratzen dituzten S. Joserren pribilejio ta erregaliak, Santu gozo onenak kontatu nai balira kaburik ez luke izango; alere debotoen konsuelorako, guziak ezin utzi ditezke. Jose Santuaren dignidade bigarrenik ez duenaren marabillarik señalatu, ta pribilejio fabore ta milagroen batzuek esan bear ditugu.

## BOSTGARRENA

### Jainkoak bere Jose maitea nolakoa egin zuen

Ori berekiko nola zan Jaunak berak daki bakarrik; gurekiko zer egin zuan, Santuaren debotoak jakin nai dute. Beren odoleko noblezian Aita S. Jose, eta Ama Birjiña bat ziran, edo berdiñak biak, Jaunak egin zituen: ta biak, ta Jesus, gizon egiazkoa danez, Dabid Santu, ta beste Erregeen odolirik zetozen. Jesus, Maria eta Jose onetan bat, edo berdin ziran. Ala iruren gorputz santuak txit antz andikoak beren garbitasun, edertasun ta beste prenda estimagarri guzietan Jaunak egin zituen; ta munduaren begietan ala ziran. Aita San Jose lenago bialdu zuan mundura, ta agertu zan gurekiko aiñ egokia, aiñ ederki egiña bere arpegian, talle, bisaje eta era guzian, nota Jaungoikoaren Ama Semeai ondoena zegokien. Traza eder ori guzia Jaunak bere eskuan zeukan.

S. Justinok, Jersonok, ta beste Doktore askok diote Jesukristoren antzik andiena San Josek iduki zuela, eta ala konbeni zala; eta ala gizonen artean ederrena Aita Sain Jose izango zan. O ditxa! O lurreko Trinitade ederra! Jaunak zekienak bezela, bere eskutik eta bere gustora egin zuen, baña animako perfekzio edo birtuteak, nork dakizki? Jainkoak bakarrik: eta oietan Jose bere Esposa Santisimaren antzekoa izan zan, edo Jaunak nai zuen gisan egin zuen bere Jesus Santuaren Anima. Ala Jaungoikoaren ontasunak eskatzen zuen, ta aren Ama Santisimari ala zegokion; bien diñako gizon kabal, Esposo ta Aita, etxeko nagusia, jabe eta agintari prenda on guzietakoa Aita S. Jose Jaungoikoarekiko eta gizonakiko izatea.

Ama Birjiña amalau urtekoa Esposatu edo ezkondu zan, munduan izan dan donzellarik ederren garbiena. Eta aren lagun, ta Jaunaren eskutikako esposo zegokiona izateko gure esaeran Jose Santuak edadearen lorean, edo ogei eta amar urteron z ibilli bear zuen, ta zarrago pintatzen badute ere, gauza ziertoa da, taju ta ardore onekoa bear zuela izan, gero bearra egiteko; eta Ama Birjiña ta bere Semearekin nekezko biajeak, ta penazko tratuak igaro, ta eramateko. Gure Jesus maiteak ogei ta amar urte zituenean ere, Aita San Joserren semetzat, dio San Lukasek, beren ustez zeukatela; baña oriek misterio, edo milagroa etzekiten, ta ala beren begiaz zekuztenaz gobernatu, ta Jose, Jesusen Aita zala uste zuten; ta Ebanjelioak au erakusten digu.



Alere onen gañean Zeruko argi andi, edo Eguzki S. Agustinek ederki adieragiten digu: Jesu Kristoren Dibinidade, eta sorze milagroso, eta Enkarnazioa ondo ziekitenak ere, edo Ama Santisimak, eta San Lukasek Jose Santuari Jesusen Aita deitu ziotela, eta izen aundi ori eman ziotela; eta gurekiko dudarik gabe, guzien begietan, Jesus ederrak Aita S. Jose idurango zuen, eta aren antz andia izango zuen, eta zenbait bider, beste aurtxoak kariñoz zoratu ta bezela, beren Aitagana laztanga joan oi diran gisa; gure aurtxo txiki, eta Jangoiko andi, Jesus eder gozoa, bere kariño obeaz, eta amore dibino guztiarekin, besotxoak zabaldu, eta Aita San Josegana joango zan! Ark bere besoetan arzeko zaletu, eta aĩñ gozoro esaten ziola: Nere biotzeko Aita: Nire Aita maite laztana, nere Aita Eternoak zure kontura lurrean naukana! Ark nigatik pagatuko dizu Zeruan. Aren borondatea oraiñ, eta beti dagigun; ori da gure gloria bizia.

Onela, edo Jesusen Jakindo guztiak obeto zekien bezala, zenbat bider Aitaren izen amorosoaz Jose onratuko zuen? Eta onek bere Jangoiko guztia ala ikusi, eta bere besoetan artu, ta, zer esango zion, edo zer egingo zuen? Amore Zeruko batean irazaki, urtu, eta desegingo zan. Bere Jangoikoa berekin zeukala, Santa, eta Aingeru guziak baño ditzosoago, eta Jangoikotasunaren ondasun, honra, eta atsegin guziakin bere burua aĩñ aberats ikusi, eta zori onekoaren animak, edo Jose santuaren biotzak, zer egin al zezakean, ezpada amorezko Jesus, aurtxo Jaungoiko onen ondo gabeko itxaso artan ondatu, eta lurrean Glorian bezela sartu, ta bizi?

Eta zenbat onelako zoragarritzko goza aldi Aita San Josek artuko zituen, Jesus maitearen Aurtasunean etxean, eta bere biaje, edo bideetan Ama Santisimak bere besoetan eramateko ematen zionean; Zer biotzeko laztan estuak, zer kariñozko musu gozoak bata besteari emango ziozkatent? Ez da erraz esatea. Eta onela Jesus, Maria, eta Joseren nekeak arintzen ziran. Gero Jesus azi, edo andiago zanean, eta Aita S. Jose bere bearrean ari zanean, Jesus, eta bere Amari sustentua irabazteko, zenbat bider Jesus maitea humilla bere Aita onari bearrean laguntzera juango zan? O zer errespeto, zer obediencia, zer amore humildadez betea Jesusek Aita San Joseri iduki, eta erakutsiko zion! O Aingeruak! Ispillu au ikusi, ta bien humiltasun, eta bien anditasunaz arri zaitetze.

Eta onela, edo berak dakiten bezela irurak bizi izan ziran; eta Jesus, ogei eta amar urteetan zebillela, San Jose Ebanjelioak izendatzen du: Eta gure adiera, edo esateko moduan orduan Aita San Jose erregalo, ta neke andiak ikusi, ta eramanik, guzietatik libratu zan; eta eman zion bere azkeneke, ez gaitzak, ezpada amore sukarra, eta ditxa gozo onen pasioz guzia

irazaki, urtu, ta akabatu zan, bere Espiritu garbia Amabirjiñaren eskuetatik Jesusen biotzean gozoro sartuaz.

Jesus maiteak berak Aita San Joseri begiak itxi, eta obirako janzi zuen, ta Ama Birjiñarekin batean, Jauna alabatzen zutela Jose ditzosoaren gorputz santua Josafateko zelaian bere obian gorde zuten, eta gero obi orren ondoan Ama Birjiñaren gorputza ere Apostoluak gorde zuten. Aita S. Jose, Jesus onak illen artetik piztu, edo resuzitatu zanean, berekin gorputz, ta anima gloriuz janzirik lurretik betiko jaso zuen; eta Asenzio egunean berekin Zeruetara igo zuen; eta an dago Jose bere Esposa Mariaren aldean; eta Jesus, Maria eta, Jose gure bitartekoak an daude batean.

Oraĩndaño, Aita San Jose gurekiko, edo emen lurrean, eta agirian nolakoa zan esan degu, orain Jangoikoak arekiko egin zituen Marabillak esan bear ditugu.



## SEIGARRENA

### Aita San Joseren marabillak

Ama Birjiña Santisima Jaungoikoak bere Ama egiazkoa egin zuen bezela onen Esposo maite Jose Santua bere Aita ustekoa egin zuen, eta nola Zeruetako Erregiñaren grazia, ta pribilejio, doai ta marabilla guztiak, Jaungoikoaren Ama Maria izatean, edo dignidade dibino onetan beren sustraiean bezela asi ziran sortu ta sarturik dauden, ala bere modura Jose gloriosoagan Jainkoak egiñak, eta arkitzen diran grazia, doai eta pribilejio dibino guztiak, Ama Birjinaren egiazko Esposo, ta onen Seme Jesukristoren Aita usteko izatean sortu ta jaio, eta sarturik daude. Bien neurria au da; eta gure kontu, egiazko zuzenak emendik atara bear ditugu.

Aitaren Izen, edo Titulo Dibino ori bere Jose maiteari Aita Eternoak eman zion, eta lurlean bere lekuan, edo ordeko ipiñi, eta Jesus bere Semeari Aitak bezela lagunzeko, Ofizio ori eman zion. Izen guztien gañeko Izen paregabea, Ofiziorik Dibinoena: Gizonen artean bestek iñork Jose ditxosoak baizen, sekulan artu ez duena, ta sekuletan bestek izango ez duena. Aita Eternoaren eskutik Jesus Zeruko, ta mundu guztiko Erregea da: Maria Santisima onen Ama da Erregiña, ta Jose onen Esposo, ta aren Aita ustekoa da Santu, ta Aingeruen artean Prinzipe bakarra. Onek bakarrik bere mendean bere eskupean ta bere kontura Aingeru, ta Santu guztien Errege ta Erregiña, Aita Eternoaren borondatez ta gustora, Prinzipe, eta Aita guziz onak bezela iduki, gorde eta gobernatu zituen. O ditxa, o honra eta Dignidade Jainkozko, edo guztiz Dibinoa!

Aita San Jose bakarra bere Ondasun eta Misterio Dibinoen Sekretario, eta Testigu fiela Jangoikoak egin zuen: Milagro eta Misterio guztien ezkutatueneren, edo Jaungoikoa Gizon egindako Enkarnazioaren berri Josek, gizonen artean lenengo jakin zuen: eta orretarako, esan oi dan Mandataria, sinistu diteke izandu zala Aingeru San Gabriel, Aita Eternoak Enkarnazioko berri onakin Ama Birjiñari bialdu ziona bera; bere Esposarekin bat onetan, beste pribilejio askotan bezela Jose maitea egiteko. Eta San Gabriel eta beste Aingeruak, zer pozarekin, bear zan bezela, Aita S. Josegana Jaungoikoaren mandatuak ekartzen ibilliko ziran, Santu glorioso au Jaunaren aurrean zeñ estimatua eta zer Prinzipe andi paregabea eta Jesus eta Mariaren laztana zan ikusirik?

Beste Aita San Joseren Marabilla eta Jaungoikoak eman zion pribilejio andia da, Ama Birjiñaren urrena, edo lenengo Gizonen artean Kastidateko botoa egin zuena izatea. Bere Esposa Birjiñen Erregiñaren anzekoa eta Santuen Prinzipe garbia izan zedin, Eta Doktoreak diote, Aita San Jose

gorputz eta animan aiñ garbia Jaunak egin zuala, zer pekatuen kutsu, edo arrastorik ere Santu pribilejiatu onek izandu etzuela. Alako Eskolan bizi zan eta Jangoikoari eta bere Ama Santisimari ori zegokiola eta ez besterik.

Aita S. Josef justua zan, dio San Mateok; ta esan nai du orretan, diote Santuak, Jainkoak txit Justu Santua egin zuela: eta nola Santu guzien ditxosoena bere Dignidadean, ala Santidadean guziaz eragin ziela eta Ama Birjiñaren urrena birtute guziaz betea, edo perfeziorik andienekoa; Jangoikoaren amorioan eta onen borondatea beti egitean, guziaz aurrea artu ziela. Zerutarrak bezela eta bestek ez nola, Zeruko ejerzizio dibino au bere Esposa santisimagandik eta are geiago Jesus amorezko Maisu Dibinoagandik ikasi zuen eta onetan beti bizitu zan. Eta bear bada, Aita S. Joseri Jaungoikoak egin zion faborerik andiena, Lezio eta Ejerzizio dibino au izan zan. Izan al ditekean prerogativa, ditxa eta santidaderik altuena eta fabore guzien koroa da, Jaunaren borondatea beti obeto egitea.

Aingeru guzien gañeko doai seinalatua gure Josek Jaunagandik artu zuen; bada Jesus bere humildadez eta gure amorez Aingeruak baño bera-go jetxi bazan eta txikiago, Gizon egin eta lurlean agertu bazan ere, emen Aingeru Goardakorik artu etzuen eta guztiak aren serbitzari beti izandu ziran. Aita San Jose bakarrik Jesusen Aitaren Izen ta Titulo dibinoaz onratu zuan eta Gizon eta Aingeruen artean bere Gobernari eta Aingeru Goardakotzat bezela eskojitu zuen eta emengo trabaju guzietan txit ederki eta seguru gorde zuen eta peligro andietatik, ta etsaien atzaparretatik libratu zuen.

Aita maiteenaren Zeruko ofizio oiek Jose Santuari Jesusek, Semerik onenak bezela lurlean ere pagatu ziozkan; baña zer arreglo zer atsegin, zer gozaldiakin? Zenbat bider Aur txiki, Jangoiko andi au bere ontasun guziarekin Jose ditxosoaren beso eta laztanetara joango zan eta esango zion, «O nere Jose maitea! O nere Aita gozoa Zure anparoon, eta zure kontura bizi nai det. Aitaren Izen eta Ofizio onekin dituzun neke eta egiteko guztien pagua, neri dagokidan ta zuri dagokizun moduan emango dizut. Zure besoetan eta zure biotzeko laztan amorosoetan daukat nik nere atsegiñik andiena. O zenbat onelako erregalo esan eta egingo ziozkan! O nere Jesus! eranzungo zion: O nere Jaungoiko gozoa. Zu bakarrik zera nere Ondasun eta pagu osoa! Zu zera nere sari geiegia, nere guztia, nere gloria bizia! Eta biak onela ikusi eta Ama Birjiñaren biotz sagraduak biotz Santu aien maitetasunetan, zer gloria artuko zuen? Ori berak baizik bestek nork daki?

Eta baldin arrazoi askorekin fabore andi eta seinalatua bezela kontatzen bada, S. Antonio Paduakoari Jesus beiñ agertu eta erregalatu zuela; orobat San Estanislao gaixorik zegoela, Ama Birjiñak Jesus bere Semea oi



gañean utzi eta kontsolatu ta sendatu zuela eta S. Juan Bautista, Santa Isabelen sabelean zegoela Zeruko argiz bete eta santifikatu bazuen, zeñ Gizon, edo Aingeruk esan dezake gure Jesus maiteak Aita San Joserekin, egunero eta orduero aibeste urtean zer egin zuen? Zer eta nolako fabore, ta erregalo Dibinoa? Aingeruai, eta beste Santu banakai txit ugari Jaunak bere doaiak eman ziezten. Baña Aita S. Joseri bere ondasun guzien Jabe, edo toki eta ontzi egokiari bezela bere Doai, ta grazia Dibino guztien gañez eragin arteraño Jaunak isuri ziozkan.

San Juan diszipulu amatuari Jesus maiteak Gurutzetik bere Ama Santisima Amatzat eman zionean, fabore eta pribilejio guziz andia egin zion. Baña zer du zer ikusi Ama Birjiña Jose Santuaren egiazko Esposa egin ta guztia beretzat ematearekin? Ditxa onek parerik ez du Aita San Joseren pribilejio, iñork bestek ez duena da au. Aita Eternoak bere Seme bakarraren Aita usteko egin zuen, baña Ama Birjiñaren egiazko Esposo. Eta Jesus bere Semea Esposa onen egiazko Semea; ala Jesus maitea, nola guztia bere Ama Santisimarena dan, ala bere Amarekin batean guztia Josef Santuarena da. Arbola baten Jabearena da orren frutua kanpo baten Jabearena da iturri or sortu, edo jaiotzen dana milagro sortutzen badare. Maria Joseren Esposa garbiaren sabeleko frutu bedeinkatua da Jesus ta ala Josef ditxosoari dagokio guztia, Arbolarekin batean. Maria da Jardin, edo kanpo Zeruko bat, zeñean milagro andiz, Jesus grazia guztien Iturri ederra sortu eta jaiotzen eta guztia Jose gozoarena da, edo Ama Semeak, bereak bezela, dakozkio. O ditxa guzien andiena!

Aita S. Josef, Jesus eta bere Ama maitearekin ofizio eta egitekorik andien oriek, bear bezela egiteko, Doktore batzuek diote: bere Amaren sabelean Josef santifikatu zuela Jangoikoak bere Adiskide txit onetsia bezela. Ori Jaunari ondo zegokion eta Josef gloriosoaren Dibinidadeari ere bai. Besteak diote: Txit letraduna ta Eskola eta jakinduria andikoa gattetatik Jose izandu zala. Baña zer eskola obeagorik eta zer jakintasun andiagorik, Jesus eta Mariagandik zuena baño? Erregeen odoletik Aita San Jose bazetorren ere Jangoikoak, bere Ama bezela, pobre egin zuen eta munduko gizonik andienak ez bezela, Nekazari izandu zan: bere bear onradu garbiarekin Jangoikoaren Seme eta Amari bizitzen laguntzeko, bere etxean eta bere ordu jakiñetan, Jainkoak nai zuen bezela, bearra poliiki egiten zuen eta gero Jesus azi zanean, Aita San Joseri bearra egiten laguntzen zion, Korneliok Santuakin dionez. Jesus maiteak onetan nekazariari ejenplo miragarria eman zien.

## ZAZPIGARRENA

### Nondik, eta nola Aita San Joseren Debozioa asi zan

Santu maite onen Debotoenzat Zeruko konsuelo ezti guziak baño gozoago da orañ esango dedana. Jesu Kristoren, ta Ama Birjiñaren deboto guziak Aita San Joserenak izango dira. Baña zer milagro, Aingeru, ta Santuak diranean, zu onen deboto izatea! Ori baño geiago jakin bear dezu, Santu, ta Aingeruak Josef estimatzea, ta onratzea zer da? Baldin munduan izan diran Joseren lenengo, ta egiazko debotoak Jangoikoaren semea, ta Jangoikoaren Ama izan badira? Au bai dala Marabilla, ta Pribilejioa. Bada alaxe da. Jesus, ta Mariak, Josef baño kriatura estimatu, ta amatuagorik ala Zeruan, nola lurrean ez dute. Zer naizu geiago? Eta zeruko berri on oiek aditu, ta ejenplo dibino oiek zuk ikusi, ta nola zure biotza sekulako bertatik Aita San Joseren debozio, ta amorioan berotu, irazaki, ta gozoro urtuko ez da?

Egia da, Aita S. Joseren debozio au, aren beste Zeruko exzelentzia-kin batean Ebanjeliotik ateratzen dala: eta orren Interprete, ta Dotore sagraduak Jose justuaren Marabilla andiak Eleiza Santuan beti esan, ta eskribitu dituztela. Alere azkeneko denboretaraño ezkutatua bezela, esan diteke egondu dala: eta orañ deboziorik gozoen onek, gure Indietan, ta emen Jangoikozko suak eta garrak irazaki dituela, eta bihotz guzien jabe egin dala, eta gure ditxa andiaz bere bonbonadarik andien, ta zabalenak alde guztietara banatu dituela. Gure Españan lenengoetatik bere *Flos Sanctorum* estimatuan, San Joseren bitzita Aita Ribadeneirak txit ederki eskribitu zuen eta Santuaren amore gozo bat artzeko askodiña bera da.

Onetarako, gure Españako Serafin miragarri, edo Ama Santa Teresa de Jesus Serafikari, txit asko zor diogu. Gusto andia da irakurtea, baña paper gutxian ezin diteke, Santak diozkan Marabillak eta Santuaren erregaloak kontatzea. Emakume guztien honra paregabe eta Karmengo Lore, Birjiñen Ispillu eta Maestra onek, San Josegandik fabore señalatuak, urteero ta beti artu izan zituen.

Santak, gu bezela, Jose gozoaren anparo, edo mantupean España guztia ikusi etzuen. Baña, zer gloria aldia, Teresaren anima ederrak Zeruan artuko zuen España guztiaren Protektore beneratua, bere Aita S. Jose maitea egin zanean? Santak berak daki. Onek Santu guzien artean, Aita S. Joseren debozioa guztiai txit agintzen die: Eta berak dio, Santua



bitarteko zuela, nai zituen Jaunaren fabore eta mesede guztiak alkanzatzela. O Santa onen debozioa nork lukean!

Besteen artean geroago, Maria Jesus Agredako ondo famatuak Ama Birjiñaren argi ederrakin Aita San Joserren gloriak eta pribilejio andi asko eskribitu zituen eta oiekin eta beste Autoreen Libruakin, San Joserren ospea txit agitz banatu da, ta bere fabore eta milagroakin, famarik andieneko Santua egin da. Baña Maisu guzien artean, gure Españan, Aita S. Jose gloriosoaren erreberenzia, ta amorean, Doktore Exsimio Aita Francisco Suarez Beneregarría txit berezkiro señalatu zan. Onek bear bada; bestek ez bezela, Aita S. Jose, Maria Santisimaren Esposo bakarraren santidade, Dignidade eta Prerogatiba guziz dibinoak, Eskoletako modura, ta Teologia Sagradu guztiaren argumenturik estuenakin eta arrazoi, beti oi dituen txitezko argi sendoakin ondeatu eta zimendu seguruen gañean agertzen eta Zeruraño jasotzen ditu eta Aita San Joserren estimazio eta egiazko amorea erakusten du.

Jesus, Maria eta Jose Ebanjelioan dauden bezela eta Zeruan oraiñ arkitzen diran bezela, beren egunetan lurrean ikusi ziran, irurak alkarrekin beti eta irurak etxe eta mai batean. Au zan familia bat bakarra mundu guztian: Familia bat guztia Zerukoa, edo Dibinoa. Oni gure erreberenzia eta gure adorazio guztia zor zaio. Teologoak Eleiza Santarekin, Relijioko iru akto, edo Debozioaren iru señale ematen dituzte eta irurak familia, edo lurreko Trinitade, Jesus, Maria eta Josegan daude. Batari *Latriako* Adorazioa deritza eta Jangoikoari bezela Jesusi bakarrik zor zaio; bestea *Hiperdulia*, ta ori Mariari zor zaio; irugarrena *Dulia* Santuai ematen zaiena eta Santu guzien artean A. S. Joseri *Dulia*-suna geien geiena eta goiena bere adorazioan zor zaio eta egiazko debozioaren asiera Adorazio onetan dago.

Jesus, Maria ta Joserren Familia Zeruko Trinitade Dibino edo iru Personen Erretrato bizi eder bat zan. Trinitade onetan Aita eta familiako Burua Aita San Jose zan: Ama, Maria Santisima zan, Eta Semea, Jesus maitea zan; Bere Aita usteko eta Bere Amaren Esposo egiazko, bere Etxeko, edo Bere Amaren eta, bere Buru Jangoikoak A. S. Jose egin zuenean, nolakoa egingo zuen? Bere eskuan zeukan. Guk Santuak neurritzen zeñ andiango dan, sartu bear eztegu; ori guzien Santugilleak berak daki. Guk dakiguna da, batetik, Jangoikoaren amorea bere obra miragarrietan ikusten, ta ezagutzen dala, bestetik munduan ikusi eta munduan Matrimonio-rik santuen, ederren eta egokiena Maria eta Jose Santisimoarena izan dala.

Baldin senar emazte Santuen beren arteko fede, errespeto eta amorrea aiñ andi, igual, edo berdiña bada; zerren esposa Santa batek bere bio-

tzaren erdia bere senar, edo esposo Santuan daukan: Zer esan diteke Maria Santisimaren Matrimonio eta, biotz Birjiñalagatik, zeñak Jose bere Esposo garbian, ez besteak bezela, bere biotzaren erdia, baizik bere anima guztia zeukan? Dударik alerik gabe Ama Birjiñak naiko zuen, Jose bere Esposo maitea Gizonik santuena, ta Jaunaren Zeruko ondasun eta ontasun guziaz bete izatea eta alakoa Jose santua Jangoikoak egingo zuen eta bere Ama maitea izan bear zuenari emango zion. Eta Jangoikoak berak, Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak, Maria eta Jose santisimoen Matrimonio, edo Jangoikozko Ezkontza onetan zer naiko zuen?

Au da eta ez besterik Joserren Santidade eta ditxa guztien erregla segurua, ta neurri ziertoa eta onek ez bestek izan bear du Aita S. Joserekiko gure amore guztiaren sustraia. Familia dibino onetan Jose Santuak egin zituen gauzak, onen lan, ta bearrak, onen neke, ta izerdiak, bere biotz gozoaren alegin guziak, Jesusen Persona dibinoa serbitzen izan ziran. O ditxa bigarrenik lurreko Gizonetan ikusi ez duen! Nola Jesus Trinitadeko Persona bera zan, ala beren modura Josek, ta Mariak, Jangoikozko espirtu eta perfekzio guztiarekin, beste persona bien anza zuten. O etxe onetako Trinitade Jesus, Maria eta Jose, Zeruko Trinitade, Aita eta Semea eta Espiritu Santuaren begietan zeñ prezioso zan, dio emen Jersonek. Oriek baño joia eta ondasun oberik, ta estimagarriagorik lurrean etzan eta Zeruko ere nolere-bait enbidia zuen.

Eta Aita S. Joserekiko Jangoikoaren amore au guztia ikusi eta aren debotoak debozio eta amorerik gozoenean nola urtuko eztira? Jose maiteari bere egiazko Esposa, Aitak bere Alaba, Semeak bere Ama, Espiritu Santuak bere Esposa bakarra eman zion: Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak, edo Jainkoak Jesusen Aitaren izena Joseri Ebanjelioan eman zioten. Zer da au, edo nola? Jangoikoa, bere Majestadeari dagokion Gloria berekin eta beregan duela dago eta ori besteri emango ez diola, esanik dauka. Bere gloria orren maite baldin bada eta Aita Eternoaren diñako aiñ gloria andia bada, Jesusen Aita deitzea, A. S. Joserekin Gloria ori nola partitu du? Seme bakar Dibinoaren diñako aiñ Gloria andia bada, Jangoikoari bere Aita deitzea, Gloria eta izen ori nola Joseri eman dio? Espiritu Santuaren aiñ Gloria andia bada, Mariaren Esposo izatea, nola Joseri bere Esposatzat eman dio? O Joserren Gloria! Ezin geiago, edo andiango izan, edo esan diteke.

Oneraño Aita San Joserren debozio eta amoriorako beraren Gloriak, Santidade eta dignidadetik esan ditugu: Oraiñ Santuak gure faborerako dituen Pribilejioak esan bear ditugu, gure debozioa bizitu eta gure amorria berotu dedin.





## ZORZIGARRENA

### Aita San Joserren pribilejioak

Beren lekuan bezela Aita S. Joserren personan pribilejio guztiak kabitzen dira, zerren aren biotzeko ontzi garbian ditxa guztiak kabitu ziran. Pribilejio guztien diña da Jose eta diranak berari bezela datozkio.

Lenengoa da: Jose Santisimoaren izen gozoa lurrean esaten dan guzian, Santa Jetrudisek ikusi zuen, Zeruko Santu eta Aingeru guziak makurtu ta bezela erreberentzia egiten ziotela eta pozik egiten diote, ondo dakitenak bezela, Jose bakarrik Mariaren Esposo, ta Jesusen Aitaren Izen eta Dignidade goienara eta ezin geiagorano Jaunaren amoreak igo zuela.

Bigarren Pribilejioa: Jangoikoak munduan egiten dituen fabore eta mesede guziak nola Ama Birjiñaren eskutik igarotzen diran, zerren bere Seme Jaunak Amari bezela honra ori egin nai dion; ala sinis dezakegu, fabore guziak, edo mesede andi asko Jose bere Aitatzakoari honra ori egiteko, onen eskuetatik gugana datozela. Beste Jose justuari ijitokoak esaten bazioten: Gure osasuna, edo bizitza zure eskuetan dago; Zenbatez obeto guk Aita San Joseri esango diogu; gure animen bizia, edo salbazioa zure eskuetan dago, edo zure kontura? Fedeko egia da: Jesus bakarrik munduaren Salbadorea dala: Jesusen eskuetan dago gure Salbazioa. Baña Jesusen eskuetan dagoena, Jose bere Aita onetsiaren eskuetan dagoela egin kontu; bada Aita Eternoak Jesus bere Semea, Aita San Joserren eskuetan eta onen kontura utzi zuen.

O zer konfianza; zer fabore, amore eta pribilejioa! Jesus maiteak Joserren kontura bere burua, edo persona dibinoa utzi zuen: Joserren eskuetan, aren mendean jarri zan: Aita San Josek agintzen ziona, Jangoikoaren Semeak egiten zuen; Josek eskatzen duena, Jesusek nai du, ta egiten du; zerren guztia Joserren obediengan, borondatean, ta eskuetan zegoen. Jaungoikoa Aur txiki egindako onen eskuak Jose Santuak artu, ta zenbat bider berotu zituen? Zenbat bider lurretik Aurtxo dibinoa jaso, ta bere eskuetan laztan gozoakin artu zuen? Zenbat bider bere eskutik artu, ta erabili zuen? Zenbat bider Jesus Aurtxoari bere eskuakin, jaten, ta edaten eman zion, janzi zuen eta lagundu zion? O esku ditxoso, esku bedein-katu, esku poderoso! Bada Jangoikoaren esku eta poderio guztia Aita San Josek bere eskuetan zeukan! Argatik Joserren eskatzea, agintzea eta egitea bezela da.

Irugarren pribilejioa: Jesusen amorioa eta Ama Birjiñaren egiazko debozioa, nola predestinatuen señaleara, edo gloriarako Markatuen prenda segurua dan, ala da bere modura San Joserren egiazko amorioa: Eta bata bestea gabe ezin dagokeala esan diteke. Fede biziaz eta biotzetik egiaz Jose amatzen duenak, Maria bere esposa eta Jesus onen Semea amatuko ditu; beti bat dira eta irurak batean dabilta. Doai, grazia eta gloriaren jabea Jesus da. Guztien giltza bere eskuan dauka. Beste giltza bat Ama Santisimari eta irugarrena Jose bere Aitatzako estimatuari eman zion; bere Debotoai munduko bidean lagundu eta Zeruko atea idikitzeko. Ara ejemploak, S. Joserren debozioko libruan Aita Allozak kontatzen du, Relijioso agustino berak ezagutu zuen bat eta San Joserren debotoa ill eta andik geroago San Agustingo beste Relijioso bati agertu eta esan ziola: Purgatorioko penetan zegoela eta Jaunaren juizioan txit estu eta kondenzioko peligroan arkitu zala; baña San Joserren faborez eta iduki zion debozio ta amorioak libratu zuela.

Beste ejemploa: San Isidoro Isolanok kontatzen du, ta Aita Santuari eskribitu zion, Venecian jaun bat izan zala San Joserren txitezko debotoa, bere bitarteko arreglatu onen izenean pobreaki limosna andiak eman eta S. Joserren Aldareak apaindu, ta onen Eleizetan beste amorezko señaleara andiak Santuaren reberentzian egiten zituala. Gaitz andi batek oni eman zion eta alegiñezko erremedioak alperrik izan ziran. Iltzeko zorian zegoen; baña gorputzaren adiskide, ta animaren etsai oi diranak bezela, naigaberik ez emategatik iñork ere bere peligroaren kontu eta abisorik ematen etzion. Baña Zeruko, ta egiazko adiskide S. Jose maiteak obeto egin zuen: Bere debotoari agertu eta Santuak zer peligroan zegoan abisatu, ta bereala iltzeko konfesatzea agindu zion. Gizon debotoak, ondo prestatu eta damu, ta negar andiakin guzia egin, ta bere bitarteko maitearen eskuetan bere anima eman zuen. Ona bere debotoai S. Josek nola salbazioko bidea erakutsi, ta Zeruko atea idikitzen dien.

Pribilejio guzietan Lezio eder bat ikasi bear degu; au da Jainkoak guretzat Santu onetan egin digun miserikordia guztien eskala misterioso bat. Gure eskariak Jangoikoagana ondo igo, ta andik obeto despatxaturik gugana jexitzeko, eskala seguru au Jose, Maria, ta Jesusena da. Nai deguna alkanatzeko Josegana joan bear degu, ta eskatu, Ama Birjiña eta Jesus ona mantentzeko bear egin zuten bere esku zorionekoak presenta ditzala: Ama Birjiña, bere bular gozoak Semeari; ta Jesus onak bere lliga preziosoak Aita Eternoari: O zer presente erregalatuak Aitaren begietara igoko diran! Eta gero? Edozeñek dakus. Aita Eternoak, pozik bere Semearen esana: Jesus Semeak, bere Ama maitearena: Mariak, bere espo-



so gozoarena, eta Jose Santuak, bere debotoen esana, edo eskaria pozik egingo du: Eta ona ditxa guzien Zeruko eskala seguru bat, Josegandik asi eta Josegan akabatzen dana.

Jangoikoak bere jakinde guztiarekin Etxe pribilijatu bat Josegan egin zuen: zazpi Koluma jaso zituen; oiek dira Jainkoganonzko iru birtute, Fede, Esperanza eta Karidadea eta orien urrengo lau andien eta bearrrenak Prudenzia Justizia, Fortaleza eta Tenplanza: Eta Jose Santuaren Animako Etxe Jauregi edo Jaunaren diñako Tenploa oiek apainzen zituen. Oiei, gure faborerako, beste zazpi Pribilejiok eranzuten die. I. Kastidadea alkanzatzeko eta onen kontrako peligroetan gu gordetzeko. II. Pekatutik libratzeko eta Jaunaren grazia biurtzeko, sokorru poderosoak izateko. III. Ama Birjiñaren debozioa alkanzatzeko. IV. Eriotza on bat eta ordu artarako Joserren anparoa. V. Joserren Izen santuaz demonioak ikartzeko. VI. Osasuna eta gaitzen erremedioa arkitzeko. VII. Umeak familien konsuelorako Josegandik alkanzatzeko.

Zazpi fabore oiek Maria Jesus Agreda Beneragarriak Ama Birjiñagandik jakin zituen eta onek esan zion: Juizioko egunean damu eta tormentu andia kondenatuak izango dutela, zerren Aita S. Jose ezagutu eta estimatu etzuten eta beraz bailatu etziran. Pribilejio guztien diña Jaungoikoak Jose egin zuen eta gure bizitzan eta eriotzan guri laguntzeko eman zigun. Ori baño geiago; Errege guztien Errege, edo mundu guztiko Erregea da Jesus, Errregiña da Maria; ta Erregiñaren esposoa da Jose, ta Erregeren Aita bezela Aita Eternoak bere ordean, ta bere Dignidade, ta ofizio guzietata señalatu ta eman zuen Ama Birjiñaren anparorako, ta onen honra gordetzeko eta bere Seme Jesus, ta gure Salbadorea salbatzeko, ta eriotzaren peligroetatik Jose Santuak guretzat, libratu ta gordetzeko.

O! ta zenbat Jose maiteari zor diogun! Guztia zor diogu, Jesus ta bere Amagan. Eta an ikusi eta nork Jose amatuko ez du? ¿Nor biotz guztitik onen deboto izango ez da? ¿Nor onen anparoaz baliatuko ez da? Norzaz obeto baliatuko gera? Nork obeto gordeko gaitu, Jesus, ta Maria gorde zituanak baño? Balia gaitean bada guziok ordu oanean. Balia gaitean Jose amoroso eta poderosoaz ta ondo joango zaku. Bada Aita Eternoa bere Seme bakar Jesus, ta bere Alaba maite Maria gordetzeko, Jose estimatuaz baliatu zan eta oni enkomendatu ziozkan. Gu ere beraz balia gaitean eta berari betiko enkomenda gaitezen. Jose Santuagana guziok guaz: Jose guziok billa dezagun: Joseri dei diozagun. Jose amatzea baño atsegin andiagorik Jesus eta Maria bere Amari eziñ emango diogu: Jesus ta Maria Josek bereak, ta txit bereak dira, ta oekin guztia gurea da.

Jangoikoak bere lekuan Jose egin zuen bere etxeko Jaun, ta bere Ondasunen jabe, edo Jesus eta Mariaren guarda, Gobernadore eta orien, ta oriekin zeruko eta lurreko Ondasun guzien Tesorero.

Iñork ezer bear, nai edo eskatzen badio, Jaunak esaten digu: *Ite ad Joseph*. Goazen bada guziok Joserren Zeruko feria onetara eta ondo merke eta doarik bakoitzak bear, nai edo eskatzen diona berea du. Balia bitez lenengo Gurasoak eta Joseri bere familia dibinoagatik, umeak ondo aitzeko grazia eska biozate eta Santuari, gorde ditzan, enkomendatu, eta S. Joserren debozio eta amorioa orien biotzetan txikitatik ondo josi bezate. Nork obeto gordeko ditu? Non Joserren etxe eta eskolan baño, gurasoen erreberenzia, amore eta obediencia umeak obeto ikasiko dute? Bijoaz Josegana: *Ite ad Joseph*.

Balia bitez ezkonduak: Beren arteko pakea Josegan arkituko dute: Etxe eta eskola onetan doarik erakusten eta ematen da ondo bizitzeko grazia: Umerik badute, oriek eta familia Jangoikoaren bildur santuan ondo zuzentzeko argia: Umerik ezpadute, Josek daki, konbeni zaien, edo ez. Berari eskatu eta beraren eskuetan utzi. Ta senar emazteen artean, deabru txarraren iduripen, edo pakea kentzeko, eragabeko bildurrik sortu bada, nork orien erremedioa obeto emango du Aita S. Josek baño? bada Aingeru Mandatariaz Jaunak berari bildurrak kendu ziozkan. Zoazte bada Josegana. *Ite ad Joseph*. Birjiña, edo donzella gazteak eta zarrak, guziak zoazte Josegana: Bidezkoak itxaso, edo leorrean peligrotan zaudetenak, Eta egiaz lurraren gañean gauden, edo gabiltzan guziok itxaso arazotu ta galdu onen ekaitz ta peligroen artean sarturik gabiltza: Guztiok Gida, ta Pilotu seguru baten bearra degu: guazen bada Josegana: onek, Jesus eta Maria bidezkoak, bideetako peligroetan anparatu, gorde eta ederki libratu gaituzte. *Ite ad Joseph*.

Bear dituzu humildade, pazienza, karidade, kastidade, ta beste birtuteak?. Bear dezu etxekoen eta kanpokoen artean jarduntzeko, orien ta besteen umoreak eramateko, ta ez gutxiago zure aldiak, edo gurari gaiztoak sufritu, zeregan ito, edo, ebakitzeko indarra eta grazia? Tentazio estu eta naigabez beterik erorteko, galtzeko ta kondenatzeko zorian bezela arkitzen zera? Edozeñ tentazio, edozeñ beste peligroetan, zoaz Josegana: *Ite ad Joseph*. Dei zaiozu eta bereala adituko zaitu. Ots egiozu Joseri, ta bereala zure lagun, zure anparoan dezu. Jose daukanak Jesus eta Maria dauzka. Jesus Maria, ta Jose amorez irurak bat dira. Jesus ta Maria billatzen dituanak Joserekin beti arkituko ditu. Joserren amorean bada, sekulako goazen. *Ite ad Joseph*.



## BEDERATZI GARRENA

### Aita San Joseren milagroak

Kristau guziak San Joseren txit debotoak izatea Jangoikoak zenbait nai duen, alegiñaz esan degu: Eta ori bera santuaren milagroekin erakusten du. Beraren debota maite Ama Santa Teresak bere bizitzan kontatzen dituenaz gañera, Aita Bolanok, edo Anberesko Autore jakiñak, Aita S. Joseren bizitzan batzuek modu onetan kontatzen dituzte.

Enrique Vande Sanden emezortzi urtekoa zala, saietseko edo ijada-miñ, ta oñaze ain gogorak tormentatzen zuten, non da ez jan, ez lorik egin al zuen, ta dolorez eta naigabez ill bear zuen. Lazaro Marques, Medik txit famatuak aletin guziak alperrik egin, ta etsia bezela, iltzeko utzi zuen. Enrique orduan txit biotzetik, fede ta debozio andi, ta konfianza osoaz, Aita S. Joseri bere peligro estuan enkomendatu zitzaion. Santuaren Kapillara eraman zuten; beren larrian orazioa egiten jarri orduko, biotzeko ansi andi batek artu zuen. Kapillatik irten, ta beingoan lau eskiñako arri ikaragarri bat milagroaz bota zuen: Eta Aita San Joseren faborez, sekulan geiago gaitz orrek eman etzion: Beraren Konfesoreak au eskribitu zuen.

Beste milagroa. Isabel Sillebort, Anberesen berrogei eta bi urteko Relijiosak miñ, edo gaitz ori bera, ta itotzerañoko oñazeak igarotzen zituen. Alegiñezko erremedioak egin eta Medikak etsirik puntuero iltzeko zorian utzi zuten: Isabelek Aita San Joseri debozio andia zion eta lurreko alibioaz etsi eta Zerukora seguroago biurtu zan. Bere eriotzako sugarrakin Relijiosak lagundu, ta San Joseren aurrean belauniko jarri zan; biotza negarrez urturik, Santuari txit estu bere faborea eskatu zion. Aita S. Josek bereala enzun, ta orra non bertan arraultza bat adiñako arritzar eskerge bat bota eta Santuak milagroaz libratu zuen eta prodijio andiaz gero, biziak iraun zion artean, urte askoan beñere ez miñik, ta ez gaitz orren arrastorik, San Joseren faboreagatik Isabelek sentitu etzuen.

Bruselasko errian andre ezkundu bat, emezorzi urteren buruan umerik gabe txit afljitua arkitzen zan. Anberesa, Aita San Joseren anparora fede bizi az juan zan: Santuaren Kapillan sartu eta biotzeko debozio andiarekin, bere Aita S. Jose bitarteko artu, ta Jaunari bere bendiziozko frutu, edo seme bat eskatu zion. Andik egun batzuetara aurdun sentitu zan, bere denboran ditxa andiaz seme bat egin zuen: Eta pozez beterik

Anberesa biurtu zan, bere Kapillan Aita S. Joseri, bere Semea eta bere burua presentatuta esker andiak ematera.

Santa Isabelgo Konbentuan, Relijiosa gazte batek aiñ buruko miñ andiak zituen, non burutik jauzia bezela, beregan ezin zegoen, ta oñazez ill bear zuen. Beste erremedioak balitzen ez ta bere preladak esan zion, fede ta debozi az Aita S. Joseri enkomenda zedilla eta aren honran bederatzi asteartetan komulga zedilla. Nobena ori txit gogotik Santuari asi zion. Laugarren asteartean S. Joseren milagro ta alabanzak Sermoi batean enzuten, zegoela, oñaze leengoan azkarri ta sekulan baño andiagoak artu zuten; aiñ larri andiak eman zion, eze bereala ill bear zuela uste zuen. Nere Santua, nere Aita San Jose esaten asi zan eta orra bertan biotzeko alegria gozo hatek artu, ta San Josek gaitz arrigarri orretatik libratu eta beñere geiago eman etzion.

Santuak Animen fabore egin dituen mirariak are andiagoak dira. Galai, edo gazte bat birtuteari txit emana, Jangoikoa obeto serbitzeko eta bere anima salbatzeko Zeruko deia aditu ta Relijioan sartzeko gogoarekin arkintzen zan. Gurasoak ori jakin zutenean, Jaungoikoaz aztu eta munduko irabazien usteakin Semea dibertitu eta Relijiorako gogoa burutik kendu zioten. Baña, oi dana, laster Seme orretan Jaunaren azotea beren gañean ikusi zuten. Ainbeste mutil ori aizatu zan, non lengo birtuteak utzi ta bizio guztietan ondatu zan eta bere gaitzerako ta bere gaiñ izateko soldadu sartu eta, deabruen banderapean aisa ibilli zan.

Gurasoak beren kastigua ezagutu eta txit estutu ziran eta Semea erremediatzeko, al zuten guzia egin zuten. Kartaz ta negarrez, Semea bereganatzeko ta adiskideaz baliatu ziran, baña alperrik. Mutillaren anima galdu eta orduan erremedioaz desengañatuak bezela, Aita San Joseren anparora biurtu ziran. Pena andi onetan Nobena bat Santuari egin zioten: Eta Bitarteko poderosoaren faborea bereala ikusi zuten. Irugarren egunean, San Josek seme gogorraren biotza bigundu eta Jaunagana biurturik, damuz eta negarrez, Seme galduaren gisa, etxean sartu zan; bere zorakerien barkazioa eskatu zien belauniko eta lastanga pakeak egin eta biziera berri Santu bat asi eta aurrera txit ondo bizi izan zan eta Gurasoak eta Semea San Joseren txit debotoak gelditu ziran.

Milagro onetan ala Gurasoak nola umeak ikasi bezate zer dan Jaungoikoaren bidetik apartatzea eta aren borondate eta Zeruko deiari zuzen eta laster ez jarraitzea. Beste fabore andi bat San Josek emakume triste bati egin zion. Oiek bere desditzaz pekatu txit itsusi bat egin zuen ta konfesatzeko lotsaren lotsaz itorik animako antsia andiakin arkitzen zan. Bere naigabe estu onetan, Aita S. Josegana biurtu eta Nobena bat biotz osoaz



agindu zion, Gauza miragarria! Azkeneko egunean bere biotza trukatu, argitu, lasaitu eta Zeruko indar gozoz beterik damu eta negarrezko konfessio oso andi bat, bildur eta lotsarik gabe S. Joserren fabore, ta milagroz egin eta bere animan Zeruko pakea arkitu zuen. Ta orra S. Joseri enkomendatzea zer dan.

Gizon galdu batek emazteari txit bizi gaiztoa ematen zion, ala berezko biotz gogorarekin nola beste andre galdu batekin deabruak itxururik zeukalako ta errian ejemplo gaizto, edo beaztopa eta zer esan asko ematen zuela bizi zan. Alegiñak egin, ta ezerk arenzat balio etzuten. Azkenik S. Jose bere bitarteko seguruagana emaztea biurtu, ta Nobena bat egitea ofrezitu zion. Debozio, ta erremedio aĩn eragillea izan zan, non bereala ordu artarik betiko gizonaren biotza Santuak trukatu zuen; ta adiskide txar galdua utzi ta bere biziko pake ederrean bere emaztearekin gelditu zan.

Dotrina andiko milagroa da, Aita Allozak kontatzen duena. Aita San Joserren deboto batek bere festa urteero eta amore txit andiarekin egiten zion, ta bere, ta beste familia ondo gordetzeko Santuari erregutzen zion. Oiek iru seme zituen eta urte bateko festan bata ill zitzaion eta urrango festa, edo urtean bestea. Debotoa txit triste gelditu zan eta pena onekin dudana, urrango festa S. Joseri egingo zion, edo ez; bada txit bildurta zan. Duda onetan etxetik irten eta kanpo batean zijoala, gizon gazte bi urkatuturik, edo urkamaendian ikusi zituan. Zer ote zan begira paratu zun eta Aingeru bat etorri, ta esan zion: Badakizu zer dakutsun? Jakizu bada, ill zaizkitzun seme biak, baldin edade onetara allegatu baziran, beren destitxaz onela urkatu eta illko zirala. Ala ez dezu zer triste egon, ezpada txit alegre. Zure Bitarteko San Jose gozoak alkanzatu dizu biak aurtxo, edo Aingeruak Zeruratzea, zure etxearen desonra izan etzitezen.

Bildur gabe Aita S. Joseri festa egiozu, Bizi dan zure seme ori Obispo izango da eta luzaro biziko da. Onetan Aingerua joan, ta gizon deboto ori, Zeruko doktriñaz erakutsia gelditu zan; Aita S. Joserren semeenzat bera baño askoz Aita ohea zan. Eta emendik guziok ikasi dezagun, gure debozio eta esperanzako santuaz ez kejatzen. Ezta zer pensatu Santuak gorra daudela, edo enzun nai ez gaituztela. Enzuten gaituzte bai ta beti; ta guk uste degun baño ere obeto. Eskatzen deguna askotan ematen ez digute, gure onagatik, edo zeren gure gaitzerako izango litzakean. Jaungoikoaren Ispillu eder bizian guzia dakuste eta guk ez dakiguna aiek ondo dakite.

Gure adiskiderik maiteenak bezela, ez gure naiari, ezpada gure onari begiratzen diote. Jesusen Esposa erregalatu Ama Santa Teresak au ondo beregan ikusi zuen eta dio, baldin ondo ez bazegokion gauzaren bat Aita

S. Joseri eskatzen bazion, Santuak eskaria zuzendu, te bearren zuena emate ziola. Santa maitearekin egiten zuena, S. Josek zurekin egingo du.

Jesus, Maria, ta Jose, edo iruren debozioa nola batean beti iduki bear degun, milagro andi onek ederki erakusten du. Aita Santuaren egiteko andi batekin Erromatik zijoan beĩn batean gizon Apostoliko Kaputxino Santu Frai Jeronimo Pistoia bere lagunarekin. Veneziaren aldean, bidea galdu eta gau batean goseak iltzeko zorian arkitu ziran. San Joserren txit debotoa zan Frai Jeronimo ta biak konfianza guziarekin Orazioan jarri, ta beren premian Jesus, Maria, ta Joseri biotzetik deitu zioten. Beingoan eta uste gabe, argi guztizko eder bat aldean ikusi, ta arunz juan ziran: etxeko bat arkitu zuten eta an errespeto andiko Gizon eta Andre bat semetxo batekin, irurak bata bestea baño ederrago; oiek txit ondo eta erregalo guziarekin artu zituzten; ta beren oi garbietan sartu eta nekatuak bezela loak artu zituen. Lo on bat egin, eguna argitu eta biak soro batean arkitu ziran bakarrik. Batera eta bestera begiratu, ta an iñon etxerik ez.

Orduan Zeruko argiarekin, Aita S. Joserren faborea ezagutu zuten eta Jesus, Maria, ta Joserren erregalo miagrosoa, izan zutela; belauniko jarri eta irurai biotzeko milla esker eman ziezkatzen. Eta ona itxaso, edo leorrean galdurik dabiltzanak nola Aita S. Joseri deitu bear dioten eta, Jesus, Maria eta Jose billatu bear diran.

Monserrateko Monje bat San Joserren txitezko debotoa zan. Santuaren Ejiptorako jornada, edo Jesus, ta bere Ama, Jaunak agindu eta eraman zitueneko Pauso ditzosoak, amore andiz pensatu oi zituen. Beĩn batean au bere Konbentura biurtzen zala, bidea mendi batean utsegin ta bere burua galdu eta txit estu arkitu zan; gauak artu eta basoko pistien eta Bاندoleroaren bildurrak eman zion. Tranze estu onetan Gizon moduzko bat topatu zuen eta astotxo batean Andre bat bere aurtxoa besoetan zuela. Bidea galdu zuela Monjeak esan ta berai jarraitzeko esan zioten. Jolas, edo platika Santuetan asi eta bere sustoak azturik Monjea txit kontentu eta gozoro zijoan, ta marabilla eta konsueloz bete eta bidea luzatzea nai zukean. Onela Konbentura allegatu eta puntu batean irurak desagertu ziran eta Jesus, Maria eta Jose zirela ezagutu zuen. Baña Ama Birjiña eta, bere Esposoaren itz dibinoak aren biotzean ain josiak geratu ziran, non da beti eriotzaraño biziro gogoan zeuzkan eta iruren debozio gozo bat beti gorde izan zuen. Guk ere bada, onela gure biziko pauso eta neke guzietan, Jesus, Maria eta Jose beti amarez gure biotzetan lagun izan ditzagun.



## JESUS, MARIA, TA JOSEREN HONRAN LIMOSNA

San Bizente Ferrerek kontatzen du, Gizon piadoso batek urte oro Eguberri egunean, andre pobre bat bere aurtxo besoetan zuena eta gizon bat Jesus, Maria, ta Joseren reberenzian, bere maiera, edo jatera konbidatu oi zituela eta bere aiek al zuen debozio, ta amore guziaz serbitu eta erregalatzen zituela. Oni bere eriotzako ordua etorri eta Jesus, Maria eta Jose agertu eta esan zioten: bada zuk gure debotoa, zure maiera ainbeste bider konbidatu gaituzu; guk ere gurera oraiñ konbidatzen zaitugu. Atoz, gure sierbo fiela, atoz eta Zeruko gure maiean eseri bear dezu: konbite eta dei gozo onekin pozez beterik, bere anima Jesus, Maria eta Joseri agindu, ta orien eskuetan Zeruko gloriara igo zan. O ta Jaunaren izenean pobrei miserikordia, ta limosna egiten dienen zorionekoak! San Joseren debotoak beraren eta al duten guzian ori bera egin dezakee; edo iru pobreri, edo Miserikordiako etxe Santuari Jesus, Maria eta Joseren izenean al dan limosna egin, eta bere contu eta aien pagu; irurak ondo pagatuko dizute.

## SAN JOSEREN ZAZPI DOLORE ETA ZAZPI GOZOAK

Debozio au Santuak berak erakutsi zuen ejemplo edo milagro jakin onetan. Flandesko itxasoan irureun persona, ta geiago ontzi batean ta bela batean txit gustora zijoazen. Baña uste gabe, orra non ekaitz, edo denboral gaizto batek artu eta onzia idiki eta puskatu zan; eta iru Relijioso San Joseren debotoak ez, beste guztiak ondatu, edo ito ziran. Iru oiek ol puska batean eskapatu eta iru egunean itxaso aserre eta erio tristearrekin burruka ibilli ziran. Beren larri ta antsi aietan txit biotzetik S. Jose maiteari ots egin zioten, ta bereala baliatu zitzairen. Gizon beneragarri bat beren ondoan ikusi zuten, Piloto trebearen gisan, ol ori txit suabero leorreronz zeramala eta lurrean seguru jarri ziran eta Jose Santuak esan zien nola bera zan, ta deitu ziotenean, eriotzatik libratzeko etorri zala, ta aurrea beraren debozioa eraman zezatela.

Geiago Santuak esan zien: Nere atsegin andiko Debozio bat egin nai badezute, nere bizitzako zazpi Dobre, ta zazpi Gozo jakiñen erreberenzian egunero zazpi Pater-noster eta Ave Maria esan bear dituzute. Debozio au fedez, ta biotzetik egunero egiten bazioten Adiskide eta bitarteko txit andi seguru bat bera izango zutela eta Jangoikoagandik faborerik andienak alkanzatzuko ziztela.

Zazpi dolore eta gozo oiek dirade. Lenengo dolorea zan, Ama Birjiña bere Esposa aurdun ikusi, ta utzi nai izan zuanean. Atsegiña zan: Aingeruak esan zionean, Espiritu Santuaren graziaz eta milagro Jangoikoaren Semea sortu zala.

Bigarren Dobre: Belengo Portalean Jesus aur jaiio berria alako desanparo eta pobrezan ikusi zuanean. Atsegiña: Aingeruak festa egitera eta Artzaiak adoratzera etorri ziran.

Irugarren Dobre: Jesus jaiio eta zortzigarren egunean Aur gozoa negarrez odola zirkunzision ikusi zuanan. Atsegiña: Josek berak Jesusen izen dibinoa eman zionean mundua salbatzera zetorren Aur ederrari.

Laugarren Dobre: Simeon Santuaren aotik Jesus onaren penak eta Ama Birjiñaren biotza ezpata zorrotzak igaroko zuela, aditu zuanean. Atsegiña: Simeonek esan zuanean, Jesus ona munduaren erremedio eta salbazioa izango zala.



Bostgarren Dolorea: Erodesen petsekuzioaren iges Ama Semeakin Ejiptora jua zanean. Atsegiña: Jesus Ejipton sartu zaneko, erri aietako Idolo, edo Jainko falsoak lurrera erorten ikusi zituenean.

Seigarren Dolorea: Ejiptotik bere Etxera biurtzen zala, Erodesen Semea Errege sartu zala aditu zueneko bildurra. Atsegiña: Galileara erretira zedilla Aingeruak esan zionean.

Zazpigarren dolorea: Bere Jesus amabi urtekoa Tenploan gelditu eta galdu zaneko pena. Atsegiña: Irugarren egunean, Zeruko Maisu egiñik Jerusalemgo Doktoarei erakusten eseri eta arkitu zutenean.

## **DEBOZIO AU OBETO EGITEKCO, ZAZPI MEDITAZIO BERE OFREZIMENTU, EDO ORAZIOAKIN**

1. Nere Aita S. Jose: Orazio au izan bedi zure lenengo Dolore eta Atsegiñaren reberenzian. Arako zure Esposa maitea aurdun ikusi eta aren Misterio ezkutatu ori ezagutu baño len, isillik bera utzi eta juateko ibilli ziñanean zure biotzak artu zuen doloreagatik; baita ere Enkarnazioko Milagroa Aingeruak agertu eta Espiritu Santuaren graziaz Birjiña Amak Jangoikoaren Semea bere sabelean zeukala, ta jaiio eta Salbadoreari bezela Jesus izena, zuk eman zegiñola, agindu zizunean artu zenduela atsegin andiagatik. Nik zure dolore ta atsegiñ onetan nere bizian lagundu nai dizut; baita ere eskatu, Ama Birjiñak, eta zuk Jesus onari erregutzea nere pekatu ta peligro guzietatik libra nazala, ta nere salbadorea izan dedilla eriotza on batekin Jesus ta Maria zurekin beti alaba ditzadan. Amen. *Pater noster, ta Ave Maria.*

Jose Mariaren esposo garbia, ta Jesusen Aita ustekoa, Zeruan ta lurrean alabatua izan zaitezela; gugatik erregutu ezazu orain eta gure erioztako orduan. Amen. *Pater poster, ta Ave Maria, eta bestea onela esaten da.*

2 Nere Aita San Jose: Orazio au izan bedi zure bigarren dolore eta atsegiñaren reberenzian. Arako Jesus jaiio ta Belengo portaletxoan, ta beren erdian alako desanparo, pobreza, otza ta neke andian zerren arenzat ostaturik arkitu etzenduen; ta ala ikusi, eta zure biotzak artu zuen orduko penagatik; baita ere Aingeruak Jaunari gloria kantatzen ta guri pakezko berri onak ematen ta Arzaiak Jesus guzien salbadorea adoratzen ikusi eta artu zenduen atsegin andiagatik. Nik zure dolore ta atsegin onetan nere bizian lagundu nai dizut, baita ere eskatu, Ama Birjiñak ta zuk Jesus onari erregutzea biotzeko pobreza ta espirituko humildadea eman dizagula bera nere biotz pobrezan jaiio lurrean ta ni aren biotzean jaiio nadin Zeruan. Amen. *Pater poster, Ave Maria ta besteak beti len bezela emen esaten dira.*

3 Nere Aita San Jose: Orazio au izan bedi zure irugarren dolore ta atsegiñaren reberenzian. Zorzi eguneko aur Jesus gozoa, Zirkunzisiona bere odola, oñaze ta negar andiak ematen, eta Jaungoikoaren seme Santua, pekataria balitz bezelako señaiekin ikusi zenduenean, zure biotzak



artu zuen orduko penagatik; baita ere Jaungoikoak Aingeruaz gaztiatu zizun bezela Jesusen izen dibinoak eman ziñonean jakiñik mundua bere pekatuetatik salbatu bear zuela artu zenduen atsegin andiagatik. Nik zure dolore ta atsegin onetan beti lagundu nai dizut: baita ere eskatu, Ama Birjiñak eta zuk Jesus onari erregutzea, nere Salbadore izan dedilla, ta nere pasio ta inklinazio txarrak ebaki, ta pekatuetatik libratu ta Jesusek ekarri zigun salbazioa betiko merezi dezadian. Amen. *Pater noster; eta besteak lenago bezela.*

4. Nere Aita San Jose: Orazio au izan bedi zure laugarren dolore ta atsegiñaren reberenzian. Berrogeigarren egunean Jesus bere Aitari Tenploan presentatu ta Simeon Santuaren aotik aditu zenduenean, Jesusek eraman bear zituen tormentuak, eta zure Esposa maitearen anima dolozko kanibetak josiko zuela: orduan zure biotza erdiratu zuen penazko ezpatagatik, baita ere Agure Santuak Jesus Jaungoikoaren semea ezagutu, ta Ana alargun Santak arekin batean Jaunaren alabanzak ta gure erremedioa kontatzen zituztela aditu, ta artu zenduen atsegin andiagatik. Nik zure dolore, ta atsegin onetan beti lagundu nai dizut baita ere eskatu Ama Birjiñak ta zuk Jesus onari erregutzea, bera nik beti ezagutu, eta adoratzeko argia, ta nere Salbadorea bezela amatzeko, grazia didala Jesusen amorezko bizitza betikoa seguratzeko. Amen. *Pater noster; eta besteak.*

5. Nere Aita San Jose: Orazio au izan bedi zure bostgarren Dolore eta Atsegiñaren reberenzian. Jesus Aurtxoa, eta bere Ama artu eta Aingeruaren abisoaz Ejiptora iges jua ziñanean, zerren Erodesek Jesus onari bizia kendu nai zion eta neke andi onetan zure biotzak artu zuen penagatik; baita ere, Jesus Ejipton sartzean ango Idoloak lurrera erori ziranean, Jangoiko egiazkoak aien Jainko falsoak ondatzen zituela ikusi, eta zuk artu zenduen atsegin andiagatik, Nik Dolore, ta Atsegin onetan beti lagundu nai dizut eta eskatu, Ama Birjiñak eta zuk Jesus onari erregutzea, nere etsai, demonio, mundu, ta aragitik libra nazala; ta Jaunaren deia, zuk bezela aditu, ta beraren borondatea neke guzietan egin, ta aren Majestadea beti adora dezadan. Amen. *Pater noster; ta besteak.*

6. Nere Aita S, Jose: Orazio au izan bedi zure seigarren Dolore eta Atsegiñaren reberenzian arako Aingeruak agindu, ta Ejiptotik Israelko zure errira zentozela, Erodesen Semea Errege zala jakin, ta Aitak bezela Jesus maiteari bizia kenduko zion bildurrez, zure biotzak artu zuen penagatik; baita ere bildur ori kentzeko Aingeruak esan zizunean, Galilea alde-ra, seguru igaro zindezela, artu zenduen atsegin andiagatik, nik dolore eta atsegin onetan beti lagundu nai dizut eta eskatu, Ama Birjiñak eta zuk Jesus onari erregutzea, mundukoen bildur gabe nik Jangoikoari beti jarrai-

tzeko indarra didala, ta zuen anparoan Zeruko bidean beti ibilli ta nere Jangoikoa beti zuekin alaba dezadan. Amen. *Pater noster; Ave Maria, ta besteak.*

7. Nere Aita S. Jose: Orazio au izan bedi zure zazpigarren Dolore eta Atsegiñaren reberenzian; Arako Jesus amabi urtekoa zala, Jerusalemgo Tenploan Jauna adoratu ta etxera biurtzean, ustegabeen gelditu zanean eta Ama Birjiñarekin aren billa iru egunean ibilli ziñanean zure biotzak artu zuen penagatik: Baita ere irugarren egunean Doktoeren erdian eseririk Zeruko Maisua bezela lurrekoai erakusten guziek Aurraren jakinde eta graziaz arriturik zeudela arkitu zenduaneko zure atsegin andiagatik. Nik zure Dolore eta atsegin onetan beti lagundu nai dizut eta eskatu, Ama Birjiñak eta zuk Jesus onari erregutzea, nik bera nere kulpaz galdu ez dezadan eta nere bizia lenago galdu, Jesus ofenditu baño, zuen grazian ondo bizi, ta zuen amorean ondo iltzeko, Amen.

*Pater noster eta lenengan bezela besteak.*

Aita San Joserren debotoak beste debozio askoren artean, San Jose-ren Errosarioa erreztatzen dute modu onetan.

## AITA SAN JOSEREN ERROSARIOA

*Pater noster ordean, esaten da:*

Nere Jangoikoa, Aita ta Semea, ta Espiritu Santua; graziak, alabanzak eta gloria guztia zuri, Aita S. Joseri egin diozkatzun grazia, doai eta pribilejio guziagatik. Amen.

*Ave Maria ordean, esaten da:*

Aita S. Jose Maria Birjiñaren diñako Esposo maitea, ta Jesusen Aitarren izena, ditxa andiaz dezuna: Zeruan eta lurrean, Aingeru eta Santu artean alabatua izan zaiteala; errege ezazu gugatik orañ, ta gure eriotzako orduan. Amen.

*Gloria Patiren lekuan esazu:*



Zeruko trinidad e Aita ta Seme, ta Espiritu Santuari gloria; ta lurreko Trinidad e Jesus, Maria eta Jose Santuari honra, oraiñ, ta beti sekula guzietan. Amen.

Emen Nobenako egun bakoitzean Eleizan, kulpituan edo etxean irakurteko, eguneroko iru Konsiderazio, S. Joseren Bizitza edo Pauso jakiñen gañean zetozen; baña ez luzatzeagatik utzi dira.

Oraiñ gure iru Debozioak asitzeko, nola Aldare, ta pinturetan Jesus, Maria ta Jose ikusten ditugun, oiek biok Jesus maitea erdian dutela; ala guk ere Kalbarioko Jesusen Debozioa, Ama Birjiñaren Errosario, ta San Joseren Nobenaren erdian emango degu, ta leneno.

J. H. S.

## AMA BIRJIÑAREN ERROSARIO SANTUA

**bear dan debozioaz errezatzeko modua**

Ama Birjiñarekin itzegiten asitzeko, soseguz eta ondo ziñatu eta Nere Jesu-Kristo Jauna &c. biotzetik esan eta gero Eleizak latinez diona *Domine labia mea &c* bateke asiko du onela.

v. Idikiko dituzu, Jauna, nere ezpañak.

R. Eta nere aoak esango ditu zure alabanzak.

v. Begira zazu, Jauna, nere sokorrura.

R. Eta atoz laster neri laguntzera.

v. Gloria Aitari, Semeari, eta Espiritu Santuari.

R. Asieran zan bezela, sekula guzietan orain eta beti Amen.

## ASTELEN, TA OSTEGUNETAKO BOST MISTERIO GOZOSOAK

### LENENGO MISTERIOA:

#### **Jangoikoaren Semearen Enkarnazioa**

Emen Sazerdoteak, edo batek Ofrezimentua esango du; ta gero obeto errezatzeko, ta Induljenziak irabazteko, batek beti kontu eraman, ta pater noster ta Ave Maria asi ta besteak soseguz beti eranzungo dute.

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama miragarria eta gure Erregina! Amar Ave Maria oiek eta Pater poster au izan bitez zure biotzak artu zuen atsegiñaren erreberenzian, San Gabriel Aingeruak berri onak ekarri eta Aita Eternoak bere Alabantzak, semeak Amatzat ta Espiritu Santuak Esosatzat artu zindueñean. Jangoikoa zure sabelean Gizon egindako Misteriorik miragarrien onegatik, arren alkanza eiguzu gure biotzetako humiltasun zurearen antzeko bat; gure pekatuen damuaz, penitentzia egiteko argia, Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoerako pakea eta Jangoikoa serbitzeko osasuna eta grazia. Amen.

*Emen Pater nosterra, ta amar Ave Maria errezatzen dira.*

### BIGARREN MISTERIOA:

#### **Ama Birjiñak Santa Isabeli egin zion bisita**

*OFREZIMENTUA.*





O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama eta birtute guztien jabea! Amar Ave Maria oiek, ta Pater noster au izan bitez zure biotzak artu zuen atsegiñaren erreberenzian: Jangoikoa zure sabelean artu, ta karidade biziak zure lengusu Santa Isabel ikustera Juan ziñanean, bera Zeruko ondasunez betetzera eta San Juan Amaren sabelean santifikatzera. Zuen bien eta zuen Seme bien artean orduan igaro ziran Misterio ezkutatuak ezagutzeko eta gure animak penitenziaz santifikatzeko bear dan guzia arren alkanza zaiguzu eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoetako pakea, ta gure Jauna serbitzeko osasuna ta grazia. Amen.

*Pater nosterra, ta amar Ave Mariak emen, ta besteetan.*

**IRUGARREN MISTERIOA:**  
**Jangoikoaren Semearen Jaiotza**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama, ta Ondasun guzien Iturria! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, Jesus zure Sabeleko Semea munduari eman, edo jaio eta trosa pobre garbietan bildu ta aberen estrabian eratzan zenduenean zure biotzak artu zuen atseginaren reberenzian. Zure Seme, ta gure Jaun onen jaiotza Santuagatik, gure biotzeta-ko garbitasuna arren alkanza zaiguzu, beraren amorioan berriro jaio gaiten, eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoetako pakea eta Jangoikoa serbitu eta amatzeko osasuna eta grazia, Amen.

**LAUGARREN MISTERIOA:**  
**Ama Birjiñaren Purifikazio, eta Presentazioa**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jaungoikoaren Ama eta Garbitasun guziaren Ontzi ederra! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, zure Semea besoetan bere Jarlekurik preziosoenean bezela gure erremediorako Tenploan ofrendatu zenduenean zure biotzak artu zuen atsegiñaren reberenzian. Misterio onetako argi, ta Ejenplo ederrakgatik arren gure animako illuntasuna kendu eta Jesus gure ditxa guztia ezagutzeko bear dan argia alkanza zaguzu eta Prinzipe Katolikoen, ta oien Erreinoetako pakea; ta Jangoikoa serbitu eta amatzeko osasuna ta grazia. Amen.

**BOSTGARREN MISTERIOA:**  
**Jesus amabi urtekoa galdu eta Tenploan arkitu zanekoa**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama eta anima galduen Zeruko bide segurua! Amar Ave Maria oiek eta Pater poster au izan bitez, Ama maitea bezela, zure Semearen billa ibilli eta Tenploan Zeruko maisua bezela, lurrekoai erakusten arkitu zenduenean, zure biotzak artu zuen atsegiñaren reberenzian. Jaun au egunero obeto billatzeko eta Maisu onen doktrina obeto ikasteko, arren beraren argi bero bat alkanza zaiguzu; baita ere gure pekatuen penitentzia, edo Konfesio on bat egiteko bear dan grazia, eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoetako pakea, eta Jaungoikoa serbitu eta eriotza on baten grazia Amen.

Gero Loretoko Ama Santisimaren Letania jakiñak esaten dira.

**ASTEARTE ETA OSTIRALEKO**  
**MISTERIO DOLOROSOAK**

**LENENGO MISTERIOA:**

**Jetsemariko Ortuan Jesus maiteak egin zuen Orazioa**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria Jangoikoaren Ama ta martiri guztien Erregiña! Amar Ave Maria oiek, eta Pater noster au izan bitez, zure biotzeko Semea eriotzarañoko angustiaz estaturik, Odolezko izerditan desegiten zan orduan, zure biotz maitegarriak artu zuen dolorearen reberenzian. Zure Seme Jesus orazio artan gure pekatuakgatik eriotzara ofrezti erazo zuen amnorio andia gatik, arren gure kulpen egiazko damu bat eta Jaunaren borondatea beti egiteko indarra alkanza zaguzu eta oien Erreinoetako pakea, ta gure Jauna serbitzeko osasuna, ta grazia. Amen.

**BIGARREN MISTERIOA:**

**Gure Jesus inozentea Koluna bati loturik, nola azotatua izan zan**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama, ta pazienziaren ispillu bizia! Amar Ave Maria oiek ta Pater noster au izan bitez, zure Seme ederra, bere soñekoak lotsa andian kendu, azotetz urratu, ta odolatan zijoanean, zure biotz amorosoak artu zuen dolore andiaren reberenzian. Zure Semearen arrigarrik pazienza, ta amore onegatik, arren gure kulpen soñeko zar itsusia kentzeko, ta oiek merezi duten kastigua, ta penak pazienzian era-



mateko biotz humil bat alkanza zaiguzu eta Prinzipe Katolikoaren eta oien Erreinoetako pakea eta gure Jauna serbitzeko osasuna eta grazia, Amen.

### **IRUGARREN MISTERIOA:**

**Jesus onari aranzazko Koroa nola josi zioten**

*OFREZIMENTUA.*

O Birgiña Maria, Jangoikoaren Ama eta triste guzien Konsuelo! Amar Ave Maria oiek, eta Pater noster au izan bitez, zure Seme Jesus, guzien egiazko Erregeari bere Buru Santua aranzaz josi ziotenean, zure biotzak artu zuan ezin esan alako dolorearen reberenzian, gure pekatuen eriotzako aranza oriek berari, eta zuri eman zizuten tormentu fortitzagatik, arren gure kulpen ondorengo aranzak, ta nekeak ondo eramateko bear degun pazientzia alkanza eiguzu, eta Prinzipe Katolikoaren, ta oien Erreinoetako pakea eta gure Jangoikoa serbitu, ta amatzeko osasuna eta grazia, Amen.

### **LAUGARREN MISTERIOA:**

**Gurutzea bere gañean artu, ta Jesus Kalbariora, eraman zutene-  
koa**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjira Maria, Jangoikoaren Ama eta lurtean bidezko galduen Argi ederra! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, Kalborioko bidean zure Semea gure kulpen karga pisua Gurutzean zeramala ta nekeaz aren azpian erorten ikusi zenduenean, zure biotz humillak artu zuan paregabeko dolorearen reberenzian. Jesus maiteak eta zuk Aita Eternoari iduki ziñioten obediencia miragarriagatik, arren alkanza zaguzu, gure Gurutze eta nekeen artean, aren borondateari zuen ondoren jarraitzeko obediencia humil bat, eta Prinzipe Katolikoaren eta oien Erreinoetako pakea eta gure Jauna serbitzeko osasuna eta grazia, Amen.

### **BOSTGARREN MISTERIOA:**

**Jangoikoaren Semea nola Gurutzean josia izan zan**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jaungoikoaren Ama, ta tormentuen ondo gabeko itxaso! Amar Ave Maria oiek, eta Pater noster au izan bitez, zure Sabeleko frutu bedeinkatua, gu salbatzeagatik, Gurutzean josia ikusi, ta negarrez, ta odola zeriola gugatik erregutzen, ta illik aren biotza lanza gogor-  
rrak idikitzen ikusi, eta zure biotzak artu zuen dolorearen reberenzian. Zure Semearen Gurutzeko dolore, ta amore guziagatik arren alkanza

zaguzu gure pasio, ta gogo eragabe guziak Gurutzean jositzeko birtutea, eta biotzeko damuaz penitentzia, edo konfesio on bat egiteko bear dan guzia; Prinzipe Katolikoaren eta oien Erreinoetako pakea, Jangoikoa serbitzeko eta amatzeko eta eriotza on bat egiteko grazia, Amen.

*Gero Loretoko Letania.*

## **ASTEAZKEN, LARUNBAT, ETA IGANDEKO MISTERIO GLORIOSOAK**

### **LENENGO MISTERIOA:**

**Jesu Kristoren Resurrekzio Glorioso**

*OFREZIMENTUA.*

O Birgiña Maria, Jangoikoaren Ama, ta Aingeruen Erregiña! Amar Ave Maria oiek, eta Pater noster au izan bitez, Zure Semea, erioa benizitu, ta gloriuz beterik Aingeru eta Santuen artean erresuzitaturik, Zu ikus-  
tera eta igarotako penak bere Gloriaz aztu erazotzera etorri zanean, zure biotzak artu zuen Zeruko alegriaren reberenzian. Gure esperanzaren gloriuzko Misterio onegatik arren konziencia justu garbi baten espirituko alegria alkanza zaiguzu eta Prinzipe Katolikoaren eta oien Erreinoetako pakea eta gure Jaungoikoa serbitu eta amatzeko osasuna eta grazia, Amen.

### **BIGARREN MISTERIOA:**

**Jesukristo nola Zeruetara igo zan, edo miragarrizko Aszenzioa**

*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jaungoikoaren Ama eta Zeruko ate ederra! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, zure Seme Jauna, Majestade guztiaz janzirik, Zeruetara igotzen ikusi zenduenean, zure biotzak artu zuen alegriaren reberenzian. Jesus maiteak Aita Eternoaren eskuian jarri-  
rik daukan poderio guziagatik, arren zure bitartez, gure biotzak, lurteko nekeen artean beragana beti jasotzeko grazia alkanza zaguzu, zurekin batean bera ikusteko eta adoratzeko: Prinzipe Katolikoaren eta oien Erreinoetako pakea eta Jaungoikoa serbitzeko eta amatzeko osasuna, eta grazia, Amen.

### **IRUGARREN MISTERIOA:**

**Espiritu Santuaren etorrera**

*OFREZIMENTUA.*



O Birjiña Maria, Jaungoikoaren Ama eta gure Argi ederraren Ama Santisima! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, Eleiza Santuaren argi eta konsuelorako Espiritu Santua Semeak Aitagandik bialdu zuenean eta zure Anima, beste guziena baño geiago bere Doai ederrez, ta gloriako ondasunez bete zuenean, zure biotzak artu zuen alegriaren reberenzian. Arren Espiritu konsoladore onen su gar bizi bat, zure biotzeko ontzi garbian bezela, bera ezagutzeko, ta amatzeko alkantza zaguzu; eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoetako pake eta Jangoikoa serbitzeko osasuna eta grazia, Amen.

#### **LAUGARREN MISTERIOA:**

**Birjiña Ama Zerura igo zaneko, edo aren Asunzioa**  
*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria, Jangoikoaren Ama eta pekatarien anparo segurua. Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, amorio gozoko zure eriotza preziosaren eta erresuzitatu, eta gloriatz janzirik Aingeruen erdian Zeruetara igo zifaneko gloria paregabearen reberenzian. Zerutar guztiak orduan artu zuten atsegin andiatatik, arren zure Mantupean bizi geran pekatarioi gure eriotzako orduan lagun zaguzu, zure eskuetan eta Jaunaren amorean gure anima eman eta Zu ikustera betiko igo gaitean eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinueta pakea eta Jangoikoa serbitzeko eta amatzeko osasuna eta grazia, Amen.

#### **BOSTGARREN MISTERIOA:**

**Ama Birjiñaren Koroazio, edo Zeruan nola Koroatua, izan zan**  
*OFREZIMENTUA.*

O Birjiña Maria Jangoikoaren Ama, Aingeru era Santu guziena Kororik ederrena! Amar Ave Maria oiek eta Pater noster au izan bitez, Trinitate Santisimoak, esan al baño gloria andiagoaz guziena Erregiña, ta Aingeru guziena baño gorago igo eta eman zizun Dignidade guziena altuaren reberenzian. Zuk or goien dituzun Gloriazko honra eta ondasun guzientatik, arren alkanza zaguzu lurreko gauzak oiñpean utzi eta Zerukoak zure ondoren eta zu ikusi artean billatzea eta orretarako, Jaunarekin batean, pekatuen egiazko damuz guziena konfesio on bat egitea eta Prinzipe Katolikoen eta oien Erreinoetako pakea eta Jaungoikoa beti amatzeko osasuna eta grazia, Amen.

*Oraii Ama Birjiña Loretokoaren Letaniak.*

## **AMOREZKO, TA DOLOREZKO JESU-KRISTOREN PAUSOAK**

### **KALBARIOKO ESTAZIOAK DEBOZIOAZ EGITEKO EJERZIZIOA**

Debozio onetan Jesu-Kristorekin itz egiteko, soseguz zifnatu, *Nere Jesukristo Jauna*, edo Aktu kontriziozkoa biotzetik egin, eta batek guziena izenean, Ofrezimentua esango du onela.

#### **OFREZIMENTUA**

Aita Eternoa, Jaun guztiz Poderosoa: Begira, ez guri, ezpada zure Seme maite Kristoren arpegi ederrari: Ta Kalbarioko bide Santu onetako Pauso guziena, beraren biotzeko amore eta intenzioaz batean, Zure gloriarik andienerako izan bitez; eta Zeruko Ejerzizio onetan diran Indulgenzia, edo Barkazio guziena, Aita Santuak nai duten bezela egiñaz, irabazi nai ditugu; eta Ama Birjiñaren eskuetatik, Zuk nai den dituzun Purgatorioko Animen sufrajioan, eta gure salbaziorako izan bitez, Amen.

### **ESTAZIOETAKO KANTA, EDO KOPLAK**

Estrib.

*Nai badezu idiki  
Zeruko Atea,  
Gurutze Santua da  
Ango giltzea.*

*Zeruko bidea  
Nai dezu ikasi,  
Kristoren pausoai  
Jarraitu beti.*



Sentenziatu dute  
Jesus maitea  
Gurutzean ilzera  
O zer penea!

**LENENGO ESTAZIOA.**  
**Eriotzako Sententzia Jesu Kristori**  
**eman zioten lekua**

Pensa ezazu Kristaba, nola Jesus gure Redentorea, Ostiral Santu goizean, bost milla, ta geiago azote, aranzazko Koroa, ta beste tormentuaz gañera, Gurutzean, ta lapur biren erdian iltzera Pilatosek kondenatu zuan.

**ORAZIOA**

O, Nere Jesus, Redentore maitea! Azote, aranza, pena, ta lotsaz beterik, aiñ isill, ta aiñ humill zure eriotzako sententzia, gure kulpakgatik artu zenduana! Zure biotzeko amore, ta humildade onegatik, arren Jauna, indazu grazia, egiazko penitziarekin nere pekatuen kateetatik libratzeko, eta zure Tribunal justuan nere faboreko sententzia, nik aditzeko, Amen.

*Pater noster, Ave Maria, ta Gloria Aita Santuaren intenziora eta au Pauso guzietan.*

Gero bakoizak esaten du:

Miserikordia, Jauna ni pekatariatz; damu det zu ofenditua. Bedeinkatua izan bedi Jesusen Pasio Santua eta Ama Birjiñaren Konzepzio garbia: Indazu, Jauna betiko zure grazia, Amen.

\* \* \*

Orañ artzen ditu  
Gurutze batean  
gure pekatuak  
bere gañean.

**BIGARREN ESTAZIOA.**  
**Jesukristori Gurutzea**  
**eman zioten lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola Jaunari burlaz janzirikako soñeko zarra tiraka Koroarekin kendu ziotenean, bere soñekoak janzi, ta koroa beriro tormentu gogorrarekin sartu zioten, eta eriozko borroeroak gure pekatuen karga guztia, edo Gurutzea bere gañean eman zioten.

**ORAZIOA**

O nere Jesus, Bildots guztiz mansua, Isak justuak baño obeto zure Sakrifiziorako egurra, zure Aitaren obediencia eta gure amoreagatik, zure sorbaldan eraman zenduana! Zure biotzeko Ontasun onegatik, arren indazu grazia, nere eragabeko gogo gaizto guzia Zure borondateari bizi-ro sujetatu eta nere kulpai ondoen dagokien penitencia, Gurutzea beti Zure ondoren gogotik eraman eta lurreko neke oekin Zeruko Koroa irabazi dezadant, Amen. *Pater noster, ta besteak.*

\* \* \*

Emen erori zan  
Jesus, gurea  
lurra jasotzeko  
bere aurrera.

**IRUGARREN ESTAZIOA.**  
**Gurutzearekin Jesus**  
**lenengo erori zan lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola gure Jesus maitea txit nekatu, ta oñen gañean ezin egon eta Gurutzearen kargarekin lurrera erori zan. Begira, nola infernuko kanalla aiek Jaunari lagundu bearrean, ostikoka, golpeka, ta arrastaka erabilli, ta nekez jaiki erazo zuten.

**ORAZIOA**

O Nere Jesus, Jaun guztiz poderosoa, ta gure amorez onela argaldu, ta lurra jo arteraño Gurutzepean makurtua! Zure amore, ta pazienza fin gabe onegatik, arren zure eskua indazu, nere kulpa pisuen azpitik, egiazko penitziarekin zugana jaikitzeke, eta zure Gurutzearen ondoren lurreko neke eta doloreetan pozik ibilli nadin eta zure Arpegi ederra Zeruko glorian ikusi dezadan, Amen. *Pater noster. &c.*

\* \* \*



Nork esan lezake  
Amaren penea,  
onela ikusita  
bere Semea.

**LAUGARREN ESTAZIOA.**  
**Jesu Kristok bere Ama Santisma**  
**topatu zuen lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola Kalbarioko bide onetan, Jesus onak bere Ama maitea pena ta negarrezko itxaso bat egiñik topatu zuan. Begira ondo, begi amorosoaz biak alkar ikusi eta nola biotz batak besteari amorez itz egingo zion ta biotz laztan biak dolorez ito, edo estutuko ziran.

**ORAZIOA**

O Amarik maiteena, dolorez eta ansiaz bete! Zer ezpata zorrotzak zure Anima josiko zuen, zure biotzeko Semea eta Aingeruen edertasuna tratatu artan ikusi zenduenean! Burua aranzaz josirik; arpegi eder ura txistuz, odolez eta autsez itxusiturik eta gure pekatuen karga, edo Gurutzea gañean zuela eta golpeka zeramatela! O Amarik aflijituena! Arren indazu zure Semearen eta zure pena oien lastima egiazko bat, gure pekatuen barbazioa, eta zuen amorioa betiko arki dezagun, Amen. *Pater noster; &c*

\* \* \*

Gurutzea eramaten  
nai dezu lagundu?  
bada emen nai dute  
lagun bat artu.

**BOSTGARREN ESTAZIOA.**  
**Jesus maiteari Gurutzea**  
**eramaten laguntzeko**  
**Simon Zirineo artu zuten lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, dolorezko bide onetan, nola gure Jesus aïñ argal, ta nekez zijoan eze, Judu odolgiroak Gurutzearen kargarekin ikara, ta erorzeko zorian ikusi, ta Simon zeritzan Zirineoko gizon bat Jaunari

laguntzeko artu zuten; baña ez lastimaz, baizik zerren Gurutzeko tormentuan iltzen ikusi nai zuten.

**ORAZIOA**

O Salbadore maiteal gure pekatuen karga zure gañean artu eta gure Arimen billa aïñ nekez Pauso oietan ibilli ziñana eta Simon ditxosoaren ejenploan, Kalbarioko bidean zuri jarraitzen eta laguntzen erakutsi ziguzuna! Iguzu arren, Jauna zure pasioko pazienza, gure pekatuen damua eta zure penen biotzeko lastima andi bat: Gurutzea eramaten oraiñ Zuri lagundu eta orren frutua goza dezagun zu alabatzen Zeruko glorian, Amen.

\* \* \*

Arpegiko izerdi,  
Eta odoletan  
Zapi bat busti du  
Iru dobletan.

**SEIGARREN ESTAZIOA.**  
**Beronika esaten dan Andre piadosak**  
**Jesus onari bere Arpegia**  
**garbitu zion lekua**

Pensa ezazu Kristaba, nola Jaunaren arpegia txistuz odolez eta autsez beterik Beronika Santak ikusi eta iru doblezko zapi garbi bat artu eta guzien artetik sartu, ta Arpegi dibinoa garbitu zion eta iru tolesturetan Jaunak bere Arpegia estanpaturik orren paguan utzi zion.

**ORAZIOA**

O Nere Jesus, egiazko edertasunaren Ispillua! Zenbat nere pekatuagatik itxusiago, anbat guretzat Beronika Santarenzat bezela maiteago. Baldin gure kulpak orrela itxusitu bazinduzten, orien damuak, edo egiazko penitenziak, Zure dolorezko izerdi, ta loiak kentzeko, zapi garbiak izan bear dute. Iguzu Jauna, grazia, biotzeko negarrakin gure animak garbitu eta zure Imajiña bizi bat orietan jositzeko, eta Zeruan Zure Arpegi ederra beti ikusteko, Amen.

\* \* \*



Bigarren aldian  
Emen da erori;  
Eta zu etzera  
Kontuan jausi.

**ZAZPIGARREN ESTAZIOA.**  
**Jesu-Kristo bigarren aldian**  
**erori zan lekua**

Pensa ezazu Kristaba, Erritik kanporako ate batean, nola gure Jauna Gurutzearen kargak eritu, ta guzia argaldu ta bigarren aldian erori ta lurra jo zuan. Begira nola borroero oiek golpeka jaso zuten eta Jerusalem galdua Jesus onak utzi zuen.

O nere Jesus miserikordiazko Aita! Munduaren jabe bakarra zu iza-nik, zoraio eta erriaren desonra baziña bezela, Jerusalemendik kanpora atera edo bota zinduzten: Eta orregatik ere Erri ditxa gabe ari lastimaz begira-tu ziñion! Arren, jauna zure Piedade guztiaz gure animai begira zaiezu ta Gurutzea eramaten nik pozik lagunduko dizut eta gure kulpakgatik, Erri-tik bota bazaituzte, guk gure biotzetan artuko zaitugu, zurekin beti bizi-tzeko, Amen.

\* \* \*

Pekatugatik  
Negar egizu;  
Bada nere penak  
Orrek eman ditu.

**ZORTZIGARREN ESTAZIOA.**  
**Jerusalengo Andreai Jesus onak**  
**itz egin zien lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola Jesus piadosoak bere desonra, eta nekeen artean, lapur infame baten gisa bazijoan ere Andre piadosa lasti-maz, ta negarrez aren ondoren zijoazenai esan zien: Jerusalemgo Alabak, ez nigatik negar egin, baizikan zeren buruakgatik, ta zuen umeakgatik, zerren orien gañera gaitz andiak etorri bear duten.

**ORAZIOA**

O nere Jesus, Artzai ona bezela gure animen billa ibilli ziñana! Kal-barioko bide gogor artan eta zure penen artean ere, Andre piadosai eta aietan guri, pekatuakgatik bear bezela negar egiten erakutsi ziñiguna, Arren Jauna, argi bizi bat, iguzu, ardi onen gisan, zure dei amorosoa aditu eta zuri Artzai onari bezela, zuzen beti jarraitzeko, ta gure biotzeko nega-rrakin orain Zuri lagundu; eta gero gure salbazioko deia zure ao gozotik betiko adi dezagun, Amen.

\* \* \*

O pekatuen  
Gauza astuna!  
Irugarrean  
Jo du emen lurra.

**BEDERATZIGARREN ESTAZIOA.**  
**Irugarren aldian**  
**Jesus erori zan lekua**

Pensa ezazu Kristaba, nola aldaparen igoeran indarra faltatu ta Jesus maitea irugarren aldian erori eta bere Arpegi ederra autsez bete zuen. Jeki nai, ta eziñ: Eta etsai gogorrek ostikoka, tiraka deadarrez esan zioten: Ea laster jaiki. Gurutzean ill bear du, an illik ikusi nai degu.

**ORAZIOA**

O nere Jesus, Zeruko Maisu amorosoa! O nola zure Gurutzea eta lurreko nekeak amore onez eramatera animatzen gaituzun. Ai Jauna! Nere kulpak dira zu bulzaka era golpeka lurrean irugarren aldian erabilli zai-tuztenak! Arren iguzu grazia, orien penitentzia egin eta Gurutzearen penak, gure kulpen saria bezela artu ditzagun; Zure doloreak eta amorioa kontenplatu eta orien segian, Zeruko ditxa betiko arki dezagun, Amen.

\* \* \*

Ona non daukazun  
Jesus billosik,  
Burutik beatzera  
Zauriz beterik.



**AMARGARREN ESTAZIOA.**  
**Jesu Kristori bere soñekoa**  
**kendu zioten lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola borrero olol zale aiek lastimarik gabe, Jangoikoaren Semeari, bere soñekoa, lotsa andian kendu eta tratu gaiztoakin, aiñ batean jarri erazo, eta beazunez nastutako ardoa eman zioten. O nola burlaka eta gaizki esaka emen desonratu zuten!

**ORAZIOA**

O nere Jesus pazienza miragarriaren Ispillua! Zer naigabe eta angustiak Zure biotzak artuko zituen, munduaren begietan Zure soñekoak kendu, llaga sagraduak berritu eta lotsa gorrian beazuna edateko eman zizuenean! Arren, Jauna iguzu indarra, pekatu eta pasioen soñeko zarra kendu eta Zure amorezko soñeko berria jantzitzeko eta emengo atsegin falso, beazunez beteak utzi eta egiazko Zure atsegiñak arkitzeko, Amen.

\* \* \*

Oñak, eta Eskuak  
 Iltzez josirik,  
 Emen dago Kristo,  
 Penaz beterik.

**AMAIKAGARREN ESTAZIOA.**  
**Jangoikoaren Semea**  
**Gurutzean josi zuten lekua**

Pensa ezazu, Kristaba, nola Jesus Bildots mansoa, aiñ isil gure pekatuakatik sakrifikatu bear zana, Gurutzearen gañean ezarri eta tiraka zañiak urraturik, iltze gogorrakin josi zuten, eta aiek errematxatzeko, Jaun dibinoaren gañean jarri eta golpe bakoitzean, Ama Santisimaren biotz amorosoa, Semearen Gorputzarekin batean urratzen zuten.

**ORAZIOA**

O Nere Jesus, pekatuak kenzen dituzun Bildots inozentea! Ai! Eta zer amorezko karobi bizia zure biotza orduan egongo zan! Bada aiñ humil, eta pozik, zure Esku eta oiñ sagraduak gurutzean jositzeko eman

ziñituen. Zure amore eta pazienza onegatik, iguzu, Jauna grazia gure esku eta oñak, pekatuen kateak urratu eta zure bildur, eta amorezko iltzeaz josi, eta Zure biotzean beti bizi gaiten, Amen.

\* \* \*

Emen Jesus iltzan  
 Gizonagatik,  
 Akordatu zaitez  
 Oraiñ, eta beti.

**AMABIGARREN ESTAZIOA.**

**Jesus gure bizitza**  
**Gurutzean jaso,**  
**eta ill zan lekua**

Pensa ezazu Kristaba, nola Jaungoiko, eta Gizon egiazko gure Jesus Gurutzean josi, eta jaso zuten eta Gututzea asentatzeko bere zañiak desegin eta puskatu eta mendi Santu artan, gure Salbadorea airean agertu zan. Begira, nola lapur biren erdian, tormentu eta burlen artean ill zan.

**ORAZIOA**

O nere Jesus, Ama Birjiñaren frutu bedeinkatua, ta (gaur ordu one-tan) gure pekatuakatik madarikatua bezela, eta gure salbazioko frutu gozo egin eta Arbola Santuan egon ziñana! Gure induljenziako, edo barkazioko eguna au da; eta ori zure tormentuak, penak eta Llagak; ori Zure negar eta biotzeko deadarrak Aita Eternoari eskatzea diote. Ala biz, Jauna eta gure kulpak egiazko penitenziaz desegin eta Zurekin ill, eta betiko bizi gaiten, Amen.

\* \* \*

Gurutze gañetik  
 Bere Amagana,  
 Emen jetxitzen da,  
 Jesus lastana.



### AMAIRUGARREN ESTAZIOA.

**Gorputz Santua jetxi,  
eta Ama Birjiñari  
eman zioten lekuan**

Pensa ezazu Kristaba nola gure Jaunaren doloreak eriotzarekin akabatu, eta Ama maitearenak dirauten. Gorputz illa lanzadaz idiki, eta Ama Birjiñaren Anima, josi zuten; eta Jose eta Nikodemus Santuak Gurutzetik jetxi eta Amari presentatu zioten. Zer onen penak, zer negarrak!

### ORAZIOA

O, nere Ama Santisima pena eta angustiazko Itxaso ondo gabea! Nork esan, edo pensa dezake, zure Animan zer igaro zan, zure biotzeko Semea, illik besoetan artu zenduenean. Aren buru, esku eta oñak eta Biotz idikia ikusi eta zer kormentu ta doloreak artu zinduzen! Arren bada gure Amarik maiteena oriekgatik iguzu egiazko lastima andi bat, pekatuen damuz betiko orienzat ill eta zurekin Zeruan bizi gaitean, Amen.

\* \* \*

Obi berri bat nai du  
Zure biotzean,  
Jesus illak betiko  
Zu bizi zaitean.

### AMALAUGARREN ESTAZIOA.

**Obian edo Sepulkro berrian  
Jesusen Gorputza  
sartu zuten lekua**

Pensa ezazu Kristaba, dolorezko Amaren besoetatik nekez Gorputz Santua, Jose eta Nikodemusek artu eta izara berri eder batean egiazko Kristo garbiri untatu eta arrizko obi berrian debozio andiaz sartu zuten. O zer Pauso onetaro Ama Birjiñaren dolore eta negar samiñak!

### ORAZIOA

O martiri guztien Erregiña! Angustien pauso onetan, Jesus zure amorezko, eta dolorezko lore pilla, edo ramillete bat egin, eta zure biotzaren erdian beti gorde zenduan. Zure martirio paregabe onegatik, arren

iguzu zure eskua, eta ditzarik andiena, zeña dan zure soledade triste onetan zuri lagun egitea, gure kulpen penitentiarekin lurreko gauzak utzi eta zure seme Jesus, eta zu beti amatzeko Zeruan, Amen.

Emen Kalbarioko beste Ejerzizio bat, meditazio eta orazio luzeakin zettorren, bakoitzak nai bazuan soseguz egiteko; baña horain aldian liburu au ez luzatzeagatik utzi da.





## AITA SAN JOSE GLORIOSOAREN NOBENA

Beste debozioetan bezela onetan ere, egun oietako abiso eta erregla jakiñak dira: Ziñatu, Aktu kontriziozkoa egin, eta gero:

### EGUNA ASITZEKO ORAZIOA

Aita San Jose Patriarka gloriosoa, Jesus maitearen aita ustekoa, eta Ama Birjiñaren egiazko Esposo ditxosoa; ala bizitzan nola eriotzan, zure debotoen bitarteko poderosoa. Baldin Jesus Dibinoaren, Ama Birjiñaren, eta zure honrarako bada, Nobena onetan guk nai, eta eskatzen deguna; alkanza eiguzu grazia au; eta, bestela, Jaunari eska zaiozu obeto dagoki-guna, beraren gloriarako, zure honra, ta gure salbaziorako, Amen.

### LENENGO EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus Aingeru guzien Jauna, zeñai, gu bizi geran artean, ondo gobernatzea agindu diezun. Gure guardako Espiritu ongille oien merezimentuak ofrezitzen dizkitzut, eta zure Aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeña, zure ama maitearen, eta zure, Aingeru guardakoa bezela, egin zenduan. Aingeru lagun, Jose Santuaren, garbitasun miragarriagatik, gure animetako garbitasuna, arren iguzu Jauna; eta Nobena onetan eskatzen degun faborea zure gloriarako, Santuaren honraraco eta gure salbaziorako baldin bada, Amen.

*Emen iru Pater noster, Ave Maria eta gloria, Trinitate Santisimoaren, Jesus, Maria, eta Joseren erreberenzian esan; ta gero.*

### EGUNERO ESATEN DAN ORAZIOA

Aita San Jose gloriosoa, Ama Birjiñaren Esposo paregabea, Jaungoikoaren Semearen Aita ordeko, eta Familia Sagraduaren Burua, eta agintari bakarra. Nere biotzeko atsegiñik andiena zure pribilejio oietan arzen det; zerren Trinitate Santisimoak bere Etxeko, edo Zeru bizi artako Jabe, edo Prinzipe izateko diña egin zinduan: Eta, Aita Eternoak bere lekuan, Aita baziña bezela, bere Seme bakar, ta aren Ama naitea zure kontura utzi, ta zure neke ta izerdiakin bien janaria irabazteko, zorioneko ditxa, eta kargua eman zizun. O Santu guztien ditxosoena! Milla esker Jaunari, Jesus eta bere Amari, zuri egin zizkitzuten, fabore guztiakgatik, eta Jangoikoa Aurtxo gozo egiñik, zure besoetan artu, eta askotan, eman

ziñozkan zure biotzeko laztan amaroakgatik. Orregatik bada, nere Aitarik onena, zure Jesus eta bere Amagandik, arren alkanza zadazu, nere pekatuen barkazioa, ta, zuen grazian, pakeazko bizitza santu bat, Jaunaren borondatea beti egiñaz, Zu, nere bitarteko poderosoa, nerekin zerala, zure besoetan, Ama Birjiñaren anparoan, eta Jesusen biotzean, eriotza on batekin nere anima emateko; baita ere Nobena onetan eskatzen dizugun faborea, gure salbaziorako baldin bada, Amen.

*Emen, fede bizi, eta esperanza osoarekin, Aita San Jose, eta Ama Semeai, bakoitzak bere biotzean nai, eta bear duen mesede, edo grazia eskatzen dio.*

*Gero Santuari Elizak egiten dion Orazio au esaten da.*

Jesuseri Ama Maria, Jose Santuarekin Esposatua zegoela, Aita Eternoaren Semea, Espiritu Santuaren graziaz, bere Sabelean zuela arkitu zan. **V.** Jangoikoak Jose Santua egin zuen bere Etxeko Jaun andi.

**R.** Baita ere, bere Ondasun guztien jabe ta agintari.

### ORAZIOA

O Jesus gure Jaungoikoa! gugatik Gizon egiña eta zure Aita Eternoak, Jose Santuaren kontura eman zinduen! Zure Ama Santisimaren Esposo maite onen amore eta erreberenziagatik, guk merezi ez duguna, arren, Jauna, iguzu; beraren, ta zure Amaren anparoan, beti, Zure grazian, bizi gaitean, Amen.

Bigarren egunean, ta besteetan onela beti egiten da, ezpada bigarren Orazioa, zeña dan urrengoetatik bat.

### BIGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus, Arkanjel guztien Jauna; zeñai zure gloriarako ta gure salbaziorako, diran egitekorik andienak zuzentzia agindu diezun. Espiritu eragille oien merezimentuak ofrezitzen dizkitzut ta zure Aita usteko S. Jose gloriosoarenak, zeñari Arkanjel estimatuenari bezela, Aita Eternoak, bere gloriarako eta onerako, munduan sekulan izandu dan, ta izango dan egitekorik andiena, edo, Zu, Jangoikoaren Semea, gizon egiñik, jaio ziñanetik, bere kontura arzea fiatu zion. San Jose maite bakarrari, onetan egiñ ziñion honra andiagatik, arren indazu, Jauna, zure lege santuko, nere obligazio guztiak, zuk nai dezun bezela, ondo kunplitzeko grazia eta Nobena onetan eskatzen degun faborea, Zure gloriarako, Santuaren honrarako, eta gure salbaziorako baldin bada, Amen.



*Beti orazioak*, dion bezela, akabatzen dira.

### **IRUGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus, Prinzipadu guztien Jauna zeñai beste Aingeruakin batean gure salbazioaren kontu idukitzea agindu ziñien. Gure animen zeloaz beterikako Espiritu oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, eta Zure aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñiak guztien salbaziorako, besteak baño geiago egin zuan, Zu, aurtxo, dibino gozoa, bere kontura artu, eta azi zinduean. Jose Santuaren amorioagatik, arren indazu, Jauna, nere eta beste guztien salbazioaren egarri andi bat, eta Zu, nere biotzean beti idukitzeko, eta nik, eta mundu guztiak Zu beti amatzeko grazia: Eta Nobena onetan, &c.

### **LAUGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus, Potestade guztien Jauna; zeñai demonioak sujetatu, eta lotutzeko esku, eta indar txit andia eman ziñien. Espiritu guziz poderoso oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, eta zure aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñari, infernuko geien gañean zure esku, eta birtute dibino eman ziñion, zure etxe, ta Familia sagradua, ezertan ere inkieta etzezaten. Aita San Joserren bidez, indazu arren Jaurra Zure eskua, ta grazia, deabruen tentazio guztien kontra, lazki, peleatzeko nere bizitzan; eta, are geiago eriotzako orduan, eta nere San Jose maitea aldean dedala, beraren eskuetan nere anima emateko: eta Nobena onetan, &c.

### **BOSTGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus Aingeru Birtuteen Jauna, zeñai milagro andi, eta gauza miragarriak munduan egiteko birtutea eman ziñien. Espiritu miragille oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, eta Zure aita usteko S. Jose gloriosoarenak, zeñari, milagrorik andienak egiteko, kriatura guztiak obedezitzen zioten, ikusirik, Zu, guztien egille, ta jabea, Joserren obediengan, pozik zeundela. Zure miragarrizko umildade onegatik, indazu Jauna grazia, zure borondate santuari nerea, gauza guzietan amorez sujetatzeko, orrela, nere animan Zure milagrorik andienak egiteko, Zure miseriakordiaz prestatu nadin. Eta Nobena onetan &c.

### **SEIGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus, Aingeru dominazioen Jauna; zeñai, beragoko beste Aingeruak agintzeko poderioa eman ziñien, berak, zurekiko humildade andian, beti daudela. Espiritu txit altu oien merezimentuak ofrezitzen

dizkizut; eta Zure Aita usteko San Jose gloriosoarenak; zeña, zure etxe, eta Familia sagraduaren Buru, eta Agintari zala, honrarik andien orretan, guztien humillena izan zan. Jose Santuaren ditxa paregabe onegatik, arren indazu, Jauna, zuk nai dezun egiazko humildadea, Zu, eta zure Ama maitea bezela, ni ere ditxa andiaz, zure Lege Santuari osoro sujetatzeko: Eta Nobena onetan, &c.

### **ZAZPIGARREN EGUNero ORAZIOA**

Nere Jesus Aingeru Tronoen Jauna; zeñetan zure Majestadearen gloriako lekuan bezela jarri, ta, zure Aunditasunak atsedeten duen. Zorioneko Espiritu oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, eta zure aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeñiek, beso garbi amorosoetan zure Majestade andia, Aurtxo gozo egiñik, ainbeste bider artu zinduen, eta atsedeten, ta atsegiñik andienak, biok artu ziñituzten. Zuen bien arteko Zeruko gozaldi oriekgatik, indazu Jauna grazia, nere biotza humildade, ta amore garbiaz prestatzeko; Zu, nere egiazko atsegin bakarra, bere Jarlekuan bezela, beti nigand iduki zaitzadan: Eta Nobena onetan, &c.

### **ZORZIGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus Kerubin jakintsuen Jauna, zeñak zure fin gabeko Jakintasunetik aiñ ugari bete zinduzen. Zure argitasun ederrez apaindurikako Espiritu oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, ta zure aita usteko S. Jose gloriosearenak, zeñari Zu ondo gobernatzeko, Aitari, eta nagusiarri bezela, misterio dibinoen rebelazio, eta bear zituen Zeruko jakinde, eta argiak eman ziñozkan. Zure aita maite onegatik, arren Jauna, indazu santuen jakindea, edo egiazko zure bildurra, ta amorioa, beti zure borondate nere biotzaren erdian iduki ta gorde dezadan. Eta Nobena onetan, &c.

### **BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIOA**

Nere Jesus, Serafin edo amorezko Aingeruen Jauna, zeñai, zure ontasun guztiak amorezko su eta garrak, Zu beti amatzeko eman ziezten. Espiritu irazaki, edo abrasatu oien merezimentuak ofrezitzen dizkizut, eta zure aita usteko San Jose gloriosoarenak, zeña Serafin guztiak baño zori obekoa bezela, Zu ikusi, adoratu, ta laztan gozuen artean bere besotan artu, eta zure amorerik garbien, eta irazakienean urtutzen zan. Bien arteko amore dibino gozo onegatik, arren Jauna indazu, Zu, nere amorezko Jaungoiko bakarra, nere biotz guztiak eta gauza guztien gañean, nere bizian, eta eriotzan, eta beti, amatzeko grazia: Eta, Nobena onetan



eskaten degun faborea, zure gloriarako, aita San Joseren horrarako, eta gure salbaziorako baldin bada, Amen Jesus.

## JESUS, MARIA ETA JOSE, JOAKIN ETA ANA

Familia sagraduan lurrean izan ziran, eta orain Zeruan diran bost persona ditzosoenak dira: oiei debozio andi bat iduki bear diezu, eta nai badezu egunero deitu, eta esan orazio au.

### ORAZIOA

Gure Jaungoikoa: zure Semea gugatik gizon egiteko, ta lurrean agerzeco, Ama Birjiñaren esposo eta gurasotzat, Jose, Joakiñ eta Ana, munduko guzien artean eskojitu, eta zure bendizioz bete zinduena. Jesus, Maria, ta Jose, Joakin eta Ana zure atsegin andiko bost persona sagradu oien egiazko debozio, eta amorioa iguzu, eta gure kulpakgatik merezi ez deguna, oien bitartez eta amorez, zuk, Aita, zure Seme eta Espiritu Santuarekin, eman eiguzu; zu, gure Jauna, emen beti amatzeko, eta aiekin batean Zeruan alabatzeko, Amen.

*Emen gero bost Ave Maria.*

## DOLORETAKO AMA BIRJIÑAREN DEBOZIOA, ETA BEDERATZI URRENA

Ama Santisimaren Misterio, edo Pauso guztiakin gure Erri oetan dan amorio andia, Jainkoa alabatzeko gauza da. Baita Ama Birjiñaren Dolo-reakiko emen oi dala erreberenzia, txit señalatu da, ta guzien biotzetan txikitarik sortu eta beti azi da; eta arrazoi andiarekin. Bada umerik erre-glatuenak, Amarik gozoenari zor dioten zorioneko lege ta debozioaren marka agiria au da. Ala gure jende piadosoak deitzen diote: Doloretako Ama Birjiña: *Piedadeko Ama, Angustietako Ama eta Soledadeko Ama Santisima*; eta izen eder oiekin Ama Birjiñaren Imajiña milagrosoak, eta txit debozio andikoak leku askotan beneratzen dirade.

Pauso deboto oriek eta beste orrelakoak Ama Birjiñaren Doloreetan sartzen, edo aditzen dirade. Oien gañean, Aita Franzisko Garciak luzaro eta ederki eskribitu zuen: Eta Santuetatik onek dakarrena bera sobra da, Ama Santisimaren Doloretako debozioa emateko. An dakar, nola Ama Birjiñaren dolore, angustia eta Soledadeko pena guztiak Jesus bere Semearen Pasioko pauso, eta gurutzeko Eriotzan zimentatu, edo fundatu ziraden. An dio, oriek zenbat, nolakoak eta zeñ gogorak izan diran. An dakar San Alberto andiaren dotriña, zeña dan; Jesu-Kristoren Pasio Santuko penak gogora ekarri eta debozioaz orietan pensatzeak Kristau onari probetxu geiago egiten diola, Ur, ta ogi urte oso batean barau ateratzeak baño eta azotez bere burua, odol asko emateraño, zatitzeak baño.

Gauza jakiña da, Semearen tormentuak, Amaren doloreekin batean ondo konsideratzeak berez, eta bere debotoenzat nolaerebaiteko suabidade gozoagoa dakartela. Bien tormentuak eta penak, samiñak eta garratzak izandu ziraden; baña orien konsiderazioa bien debotoenzat txitezko gozoa eta probetxoso da. Orregatik nobena asi baño leen Ama Birjiñaren zazpi doloreak iru modutara, laburtxo badere esan, edo kontatu bear ditugu Aita Garciak era onetan dakarzi.

Lenengo dolorea: Ama Birjiñak bere Semea Jerusalengo Tenploan presentatu zuanean eta Simeon santuak aur dibinoa besoetan artu ta Espiritu Santuaren argiaz esan zionean, Amari bere anima dolorezko ezpatak josi eta igaroko ziola, edo Jesusen Pasio ta eriotzan, amak eraman bear zituan penak.

Bigarrena: Aingeruak San Joseri agindu zionean, Jesus jaio berria ta bere ama artu, eta Ejiptora iges egin zezala, zergatik Herodesek Aurrari



bizia kendu nai zion. Berri triste onekin ama maiteak, zer pena bere biotzean artuko zuan!

Irugarrena: Jesus amabi urtekoa zala bere amak eta San Josek Jerusalem Tenplora eraman, eta galdu zitzaizenean. Zer naigabe ta penak Ama Santisimak bere Semearen billa ibilli zanean, eta bere ondasun guztia Tenploan irugarren egunean argitu zuan artean.

Laugarrena: Ostiral Santuz Jerusalemgo kalean amak topatu zuanean bere seme dibinoa gurutze pisua bere gañean zeramala, an josirik tormentuz ilzeko. Ama Semeak alkar ikusi eta begietatik biotzetara zer dolore ta pena gogorak sartuko ziran.

Bostgarrena: Kalbarioko mendian Ama Santisimak bere biotzeko seme bakarra gurutzean, ilze gogorakin josirik, eta penazko lotsa andian gora jasorik ikusi zuenean: Andik zazpi itz dibinoak aditu ta Aitari bere espiritua eman, ta illik iausi zuenean.

Seigarrena: Jose eta Nikodemusek gorputz Santua gurutzetik eratxi eta bere besoetan utzi ziotenean; bere Seme inozentea etsai odolgiroak nola paratu zuten, soseguz begira jarri zanean. Zer penazko itxaso ondo gabea Amaren biotza orduan egongo zan!

Zazpigarrena: Gizon santu biak besoetatik bere Semea artu, eta obi berrian debozio guziaz sartu zutenean: eta Ama dolorosa guztizko bakardade edo Soledade tristean negarrez gelditu zanean. Onen Animan orduan zer igaro zan nork esan dezake?

Zazpi Dolore jakiñak oriek dira. Baña nola gure Españiarako Aita Santuak bere Buldan dion, Ama Birjiñak Semearen pasioan, igaro zituen zazpi doloreak, festa berrian beneratzen dirala, Aita Garciak berak urrenguko kontaktzen ditu onela.

Lenengoa: Ostegun Santu arratsean Jesus amorosoa bere pasio, eta eriotzarako prestatu, eta bere Ama maiteagandik despeditu zanean, onen biotz amatsuak artu zuan dolore esan al baño andiagoa. O nola bere Semearekin laztanga negarrez urtuko zan.

Bigarrena: Jesus bere Semea Koluna bati lotu, eta azote gogorakin urratzen ikusi zuanean, eta guzien aurrean alako lotsa ta pena andian. Eta Ama maitea (berak Santa Brijidari esan bezela) begira zeguala. Ai zer tormentu, eta naigabeak onen biotzekoak!

Irugarrena: Azoteen ondoren aranzazko koroa burlazko Erregeari bezela etsaiak Jesus onari buruan josi ziotenean, Amak zekian nola bere Semea Errege guzien egiazko Errege bakarra zan, tormentu ta burla pisu oien artean nork pisa dezake Amaren dolorea?

Laugarrena: Jerusalemgo kalean Amak bere Semea gurutzearen kargarekin makurturik, eta erortzen zala ikusi zuanean: Eta lapur birekin, orien erdian iltzera Jaungoikoaren ta bere Semea zeramatala.

Bostgarrena: Kalbariora igo, ta bere Seme santua ikusi zuanean guzien aurrean, ta lotsa andian soñekoak kendu ta gurutzean etzin erazo, eta borreroak ilze gogorakin Jesusen esku dibinoak, oiñ Sagraduak jositzen ziozkatala. O zer Amaren tormentua!

Seigarrena: Gurutzean illik ta lanzadaz josirik bere Semea ikusi, eta gizon santu biak bere besoetara eratxi ziotenean: Eta ala Jesus ederra ikusi, ta dolorez beterik ari begira egon zanean.

Zazpigarrena: Jose eta Nikodemus Santuak Amari bere Seme, ta konsuelo bakarra obirako kendu ziotenean. Ai zer angustiak! Zer negarrik! Zer Soledade triste! Onela geratu zan Ama.

Aita Kornelio Alapide txit jakintsu, ta debotoak beste era batera Ama Birjiñaren Doloreak kontaktzen ditu, ta ziran guziak aren Biotza Gurutzearen ondoan zazpi modutan josi zutela dio.

Lenena. Zerren Gurutzean ikusten zuena, Jesus bere seme bakarra zan: eta Amak ondo ziekienak bezela, bere burua, ta bizia baño ere geiago estimatzen, ta amatzen zuen. Dolorearen neurria amorea da: Eta naiago zuen, al bazan, Amak Pasio guzia igaro, bere Semea ala ikusi baño. O zer Amaren dolorea alako Semeagatik!

Bigarrena: Zerren alako tormentu gogor andietan zegoena bere Seme, ta Jainkoaren Seme egiazkoa zan; eta onek Gorputz guztian Burutik Oñetara, sentidu, ta parte bakoitzean barrendik eta kanpotik dolore, ta penak izan zituen eta, guztiak Ama doloretuak bere biotzean eraman zituen.

Irugarrena: Zerren tormentu orietan ikusten zuana, Jaun andia ta gure Redentore, eta burua; eta gizonik billauena, jentil bat bada ere, ilzen ikustean, lastima ematen badu, zer pena izango zan Ama maitearena, Jaungoikoaren semea azote aranza eta tormentuakin ilzen ikustea?

Laugarrena: Tormentu orien iraupena edo luzetasuna Jesus onak bere bizi guztian biotzean igaro zuan eta ordu orietan, gurutzean ill arte-raño gorputzean eraman zituan; eta Ama Birjiñak bere biotzean ta Jesus ill ezker ere bai. O zer onen pena, Semeari lanzada ematean, obian sarzean ta bere soledadeko bizitza tristean!

Bostgarrena: Tormentu orietan bere semearen bakardade, ta desanparoa; bada Apostoluak igesi zebilzan, edo bakarrik utzi zuten. Aingeruen ta Aita Eternoaren anparorik ikusten etzuan; bere Ama bakarrari ta an zeudenai begira zegan. O zer tormentu gogorra!



Seigarrena: Bere semearen kontra ainbeste mingañ zorrotz, madari-  
katuak esaten zituzten gezur, burla, gaizkiesaka ta buroak edo blasfemia  
ikaragarriak aditzen zegoan. O zer naigabe ta pena! Dударik gabe tor-  
mentu andienetatik bat, Ama Birjiñak onetan izan zuan.

Zazpigarrena: Ordu orietako bere semearen betiko, bista edo aren  
pena, eta tormentuak ikusi bearra, ta ari begiratzea. Orregatik Santuak  
diote: Ama Santisima bere biotzean martiria baño geiago zala; bada  
Semearen gaitz, pena eta tormentu guztiak Amaren anima beti pasatu  
zuten.

Eta oiek dira onen Debotoenzat iru modu oietan nik arkitu ditudan  
zazpi doloreak, edo Ama Birjiñaren biotz maitean ikusten ditugun zazpi  
Ezpatatak, arenean bezela gure biotzetan betiko jositzeko. Doloreen festak  
bi urteero zelebratzen ditugu, Eta zazpi doloreen kontu eta izenean beste  
ezin kontatu ala tormentu, pena eta dolore, eta guztiak esan al baño andia-  
goak aditzen dirade.

Orañ Ama Santisimaren Nobena onetan besteetan bezela artu bear  
dira, soseguz, ta era onean bederatzi egun, eta ez errenka, ondo ezpada-  
tor; baizen debozioaz egingo diran moduan; eta bakoitzari ondoen datoz-  
kion egunetan. Ama Birjiñak eta Santuak ori nai dute, bakoizak bear  
duena alkanzatzeko.

Egun batean beiñzat konfesatu eta Komulgatu bear da; limosnaren  
bat egin pobreaki, ta zerbait irakurri, edo enzun ta egunero orren gañian  
konsideratu bear da, eta orrela beste obra onak.

Ama Birjiñaren aurrean belauniko jarri eta beti ondo ziñatu, Kontri-  
zioko Aktua, *Nere Jesu Kristo Jauna* esan, eta gero egunero Orazioak asitzen  
dira onela.

## DOLORETAKO AMA BIRJIÑARI NOBENA

O Birjiña Maria, Jainkoaren Ama miragarria eta zure Semearen  
Pasio, ta Eriotzan, doloretz ta penaz alde guzietatik bete! Baldin Jaunaren  
borondatea bada, Nobena onetan nai dedan faborea, nik alkanzatzea,  
zure Doloreakgatik eska zaiozu berari, eta bestela, bera ta zu, ebeto ser-  
bitzeko ondoen dagokidan grazia, Amen.

## LENENGO EGUNEKO ORAZIOA

Nere Ama Santisima eta Martiri guztien Erregiña! Zer dolorea zure  
biotzak artuko zuen, arako zure Seme Jesus angustietako kalean Guru-  
tzearekin ikusi eta Kalbariora jarraitu zinionean! Orduan ark bere Gor-  
putzean eta zuk biotzean igaro zinduzten tormentu guziak Aita Eternoari  
presenta zaiozkatzu, nere pekatuen damuzko penitentzia egiñaz, zuen  
amiora biurtu nadin; eta indazu Nobena onetan eskatzen dedan fabo-  
rea Jaunaren gloriarako, eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.

Emen Ama Birjiñaren Dolore, guztien eta zazpi jakiñen erreberen-  
zian, zazpi Ave Maria, eta Gloria esan, eta gero.

## EGUNEROKO ORAZIOA

O Munduko Amarik afljituena, ta pekatarien Ama bakarra! Or dau-  
kazu Gurutzean zure Seme laztana eta Aita Eternoari eskeintzeko Sakri-  
fizio, edo ofrendarik onena. Ori da gure kulpen erremedioa ta zor guzien  
pagu osoa, ta guztiak baño andiagoa. Eska zaiozu bere Seme maiteari  
begiratu, eta gure pekatuak barkatzeko bigundu dedilla: Eta pekatari, eta  
infiel guziak bere graziara ekarri ditzala.

*Emen fede, eta konfianza osoaz bere biotza jaso ta Ama Birjiñaren bitartez  
bakoitzak nai duen faborea eskatzen du, eta gero esangö du onela.*

## JESUS KRIZIFIKATUARI ORAZIOA

Nere Jesus maitea! Bada zure amorioak gurutzetik zure Ama dolo-  
rosaren mantupean utzi, ta ditxarik andienaz egin ginduen beraren dolo-  
re ta negarren umeak. Arren Jauna, zure eriotzagatik betiko bizitza iguzu:  
eta zure odolaz ta aren negarraz garbitu ta señalatuak bezela gorde gai-  
tzazu zure biotzean orañ, eta gure eriotzan. Amen.

## BOST LLAGA SAGRADUEN ADORAZIOA

Nere Ama doloretakoa. Zure Semeak nigatik artu zituen bost lлага  
preziosoak zure aurrean adoratu nai ditut: ta oriek adoratzean zuk iduki  
zenduen Espiritu ta amorioa beti iduki nai nuke.

*Ezkerreko oñeko Llagari.*

O nere Jesusen Llagaz preziosoa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut: ta  
orregatik eskatzen dizut Jauna, nere pauso ta ibillera gaiztoakin egin diz-  
kitzudan ofensa guzien barkazioa. *Pater noster, eta Gloria Patri.*

*Eskuiko oñeko Llagari.*



O nere Jesusen Llaga preziosoa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta onegatik eskatzen dizut, Jauna, nere itz ta obra gaitztoakin egin dizkitzudan ofensa guzien barkazioa. *Pater noster, ta Gloria Patri.*

*Ezkerreko eskuko Llagari.*

O nere Jesusen Llaga preziosoa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut: eta orregatik eskatzen dizut, Jauna, nere begiaz ta beste sentiduaz, egin dizkitzudan ofensa guzien barkazioa. *Pater noster, ta Gloria Patri.*

*Eskuiko eskuko Llagari.*

O nere Jesusen Llaga preziosoa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta orregatik eskatzen dizut, Jauna, nere memoria, entendimentu ta boronda-teaz egin dizkitzudan ofensa guzien barkazioa. *Pater noster ta Gloria Patri.*

*Kostadu Sagratuko Llagari.*

O nere Jesusen Llaga preziosoa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut eta orregatik eskatzen dizut, Jauna, nola zure biotza lantza gogorraz josi, eta zure Ama Santisimarena Ezpata zorrotzak, ala nere anima zure amorioaz betiko josi dezazula; bada ill naiago det, zu ofenditu baño, Amen.

*Pater poster, eta Gloria Patri.*

**BOST LLAGAI, S. FRANZISKO JABIERREK  
EGUNERO EGITEN ZIEN ORAZIOA**

Nere biotzeko Jaun eta Jaungoiko Jesu-Kristo, bost Llaga Gurutzean eta beste ezin kontatu ala zure Pasioan gure amorioak ar erazo zikitzute-nak gatk eskatzen dizut zure odol preziosoaz redimitu ginduzunok arren zure ontasunak gorde eta zure gloriara eraman gaitzala, Amen.

*Bigarren egunean, ziiñatu, Aktu Kontriziozkoa egin, eta lenengo Orazioa eta beste atzenekoa beti egunero esaten dira.*

*Bigarren Orazioa egun bakoitzerako da, urrengotatik bat.*

**BIGARREN EGUNNEKO ORAZIOA**

Nere Ama Santisima, eta Martiri guzien Erregiña! Zer Dolorea zure biotzak izango zuen, arako Gurutzearen ondoan zutik eta firme zeunde-la zure Sabeleko frutu bedeinkatua arbola artan josirik, ta gure pekatuak-gatik agonian ikusi zenduenean eta zure biotza dolorezko itxaso bat eta zure begiak negarrezko iturri bi egiñik. Arren zure piedadeaz begira zada-zu, nere kulpen egiazko penitentziaz zure Semearen Odol preziosoan nere

anima garbi dedin eta indazu Nobena onetan eskatzen dedan faborea, beraren gloriarako eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.

*Emen zazpi Ave Maria, eta lenengo eguneko beste Orazioa.*

**IRUGARREN EGUNNEKO ORAZIOA**

Nere Ama Santisima eta Martiri guztien Erregiña! Zer Dolorea zure Biotzak izandu zuen, arako zure Semeak, S. Juan amatuaren kontura zu utzi eta aren buruan gure guztien ama egin zinduenean, ta zure Doloreen umeak gu izateko, zure kontura utzi ginduen! O Amarik gozoena! Begira zaguzu bada, eta zure mantupean gorde, ta Jaunaren borondatea dan bezela bizi berri santu bat egiten lagundu zaguzu; eta iguzu Nobena onetan eskatzen degun faborea beraren gloriarako, eta gure salbaziorako baldin bada, Amen.

**LAUGARREN EGUNNEKO ORAZIOA**

Nere Ama Santisima eta Martiri guzien Erregiña! Zer dolore zure biotzak izango zuen, arako zure Seme Jaunari Judu eta Jentil itxuak, zure begietan alako burla itxusi, eta gaizki esakak aren eskarnioan, lotsarik gabe esatean? O zer tormentua zuk oriek aditzean, eta zure Semea Aita Eternoari bere Espiritua agindu, eta iltzen ikusi zenduenean! Pena guzien gogorren onegatik arren begira zadazu neri, kulpa guziak egiazko damuz garbitzeko, ta Jesus inozentea ta nere salbadorea beti alabatzeko: eta inda-zu nobena onetan eskatzen dedan faborea beraren gloriarako eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.

**BOSTGARREN EGUNNEKO ORAZIOA**

Nere Ama Santisima eta Martiri guztien Erregiña! Zer dolorea zure biotzak artuko zuen, arako zure Semea Gurutzean illik ikusi ezker eta tormentuak igaro ziralakoan ikusi zenduenean Soldadu bat, lantza jaso eta Jesus onaren biotza idikitzen eta zurea erdiratzen! Orduan saiets Sagradutik gure salbazioko Atea idiki eta odola eta ur garbia Iturri artatik irte-ten ikusi zenduen. Zure tormentu eta dolore onegatik, arren begira zada-zu eta odol prezioso eta ur gozo artan nere anima garbitzen lagun zada-zu, Zeruko ate artatik seguru sartu nadin: Eta Nobena onetan eskatzen dedan faborea, beraren gloriarako, eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.



### SEIGARREN EGUNeko ORAZIOA

Nere Ama Santisima, eta Martiri guzien Erregiña! Zer dolorea zure biotzak artuko zuan arako Jesus zure Semeari aranzazko Koroa, eta ilze odolez beteak atera ziozkatenean! Ai, ta nolako fede eta amorioaz zure eskuetan artu, eta adoratuko zinduan. Orduan igaro zenduan dolore eta pena tristeagatik, arren begira egidazu nere begi, eta beste sentiduetan aranza oriek, eta ilze oriek nere biotzean josi ditzadan eta pekatu guzien gorroto bizi batekin guztien barkazioa izan dezadan: eta Nobena onetan eskatzen dedan faborea, Jaunaren gloriarako baldin bada, Amen Jesus.

### ZAZPIGARREN EGUNeko ORAZIOA

Nere Ama Santisima, eta martiri guztien Erregiña! Zer dolorea zure biotzak artuko zuan, arako seme dibinoaren gorputza era artan, bere diñako Aldarerik ederren, eta garbiena, edo zure beso birjiñaletan artu zenduanean! Au da zure Angustietako pauso ikusgarria. Ai! Eta nola begiratu zioziñon gorputz dibino Espiritu Santuak zure Sabelean egin zuen ari! Lan guztiz ederra, eta orain tormentuz itsusitua eta nere kulpakgatik desegiña. Zure penen artean arren begira niri, orien lotsaz ta damuz bien piedadea billatzen dedan oni; eta Nobena onetan, eskatzen dedan faborea, bien gloriarako eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.

### ZORTZIGARREN EGUNeko ORAZIOA

Nere Ama Santisima eta Martiri guzien Erregiña! Zer dolore zure biotzak artuko zuan, arako zure semearen burua, eskuak eta oñak, eta gorputz guztia ikusten jarri ziñanean! Zure negar tristeakin aren arpegia garbitu eta untatzeko, eta obirako janzitzeko, dolorez beterik eman zenduen. Zure animako pena orregatik arren begira zadazu neri, eta nere pekatuen penitentzia, eta bizitza berri santu bat egiten lagun zadazu, zure Semea nere biotzean betiko artu eta gorde dezadan, baita ere Nobena onetan eskatzen dedan faborea alkanzatzeko, beraren gloriarako eta nere salbaziorako baldin bada, Amen.

### BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIOA

Nere Ama Santisima eta Martiri guztien Erregiña! Zer dolore zure biotzak artuko zuen, arako zure Seme laztana obian sartu eta utzi zenduenean eta penaz illa bezela bakarra eta zure biotzeko bizitza gabe gelditu ziñanean! O Aingeruak, eta kriptura guztiak, zuen Erregiñari lagun egiozute, bere luto eta Soledade triste onetan. Arren nere kulpen barkazioa, zure Doloreakgatik, Jaunagandik alkanza zadazu eta Nobena onetan

eskatzen dedan faborea, beraren Gloriarako eta nere salbaziorako baldin bada, Amen Jesus.

## AMABIRJIÑAREN LETANIAK

Jauna, erruki zaitte.

Kristo, erruki zaitte.

Jauna, erruki zaitte.

Kristo, adi gaitzatzu.

Kristo, enzun gaitzazu.

Zeruko Aita Jaungoikoa.

*Erruki zaitte guzaz.*

Munduaren Redentore Seme Jaungoikoa.

*Erruki zaitte guzaz.*

Espiritu Santu Jaungoikoa.

*Erruki zaitte guzaz.*

Trinidad Santu, Jaungoiko bat zerana.

*Erruki zaitte guzaz.*

Maria Santa.

*Erregu ezazu gugatik.*

Jangoikoaren Ama Santa.

*Erregu ezazu gugatik.*

Birjiñen Birjiña Santa.

*Erregu ezazu gugatik.*

Kristoren Ama.

*Erregu ezazu gugatik.*

Grazia Jangoikozkoaren Ama.

*Erregu ezazu gugatik.*

Ama guztiz garbia.

*Erregu ezazu gugatik.*

Ama guztiz kastoa.

*Erregu ezazu gugatik.*

Birjiña zeralarik Ama.

*Erregu ezazu gugatik.*

Ama tatxarrik gabea.

*Erregu ezazu gugatik.*

Ama Sortzetik garbia.



*Erregu ezazu gugatik.*  
 Ama maitegarria.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Ama miragarria.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Kreatzallearen Ama.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Salbatzailearen Ama  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiña guztiz begiratua.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiña benegarria.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiña alabagarria.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Esku andiko Birjiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiñe biotz beraa.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiña leiala.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birtute guztien ispillua.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Jakinduriaren eser lekua.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Gure poz emallea.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Ontzi espirituala.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Onzi errespetagarria.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Debozioaren onzi andia.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Arrosa misteriosa.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Dabiden Torrea.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Marfillezko Torrea.  
*Erregu ezazu gugatik.*

Urrezko Etxea.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Batasunaren Kutxa.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Zeruko Atea.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Egun sentiko Izarra.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Erien Osasuna.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Pekatarien Igeslekua.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Estuasunen konsueloa.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Kristaben laguntzalea.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Aingeruen Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Patriarken Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Profeten Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Apostoluen Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Martirien Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Konfesooren Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Birjiñen Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Santu guztien Erregiña.  
*Erregu ezazu gugatik.*  
 Jaungoikoaren bildots munduko bekatuak kentzen dituzuna.  
*Barka eizazu Jauna.*  
 Jangoikoaren bildots munduko bekatuak kentzen dituzuna.  
*Enzun gaitzazu Jauna.*  
 Jaungoikoaren bildots munduko bekatuak kentzen dituzuna.  
*Erruki zaitte guzaz.*





*Aña.* Zure anparora gatoz Jaungoikoaren Ama Santa, ez ditzadazula aditu gabe utzi gure Premietan egiten dizkizuguna eskariak, baizik libra gaitzatzu beti peril guzietatik Birjiña gloriar eta bendizioz betea.

Erregutu ezazu gugatik Jaungoikuaren Ama Santa.

*Iritxi dezagun Kristok aginduak.*

### **ORAZIOA**

Erregutzen dizugu, Jauna, ixuri dezazula gure animetan zure grazia: Kristo zure Semea gizon egin zala Aingeruaren aotik jakindu degun ezkerro, aren pasio eta gurutzearen bidez erresurrezioko gloriara eramanak izan gaitezen, Kristo gure Jaun beraren merezimentuakgatik. *Ala gerta dedilla.*

Jaungoikoaren laguntza izan dedilla beti gurekin.

*Ala izan dedila.*

### **AMA BIRJIÑARI**

#### **SAN AGUSTIÑEK EGIN ZION ORAZIOA**

Akorda zaitetz, O Birjiña Ama piedade guziaz betea, iñoiz ere, edo sekulan ez dala aditu zure anparoa etorri danik, eta bere nekeetan zuri deitu dizunik, desanparatua izandu dala. Ni bada konfianza onekin animaturik, zugana lasterka biurtzen naiz; Birjiña guztien Birjiña, Ama, zuga-na nator; zure aurrean negarrez eske nago. Ez arren bada, o Jaungoikoaren berbo edo itz dibinoaren Ama, nere itzai gor egin, baizikan nere one-rako oriek enzun, eta onez adiezazu. Au eskatzen dizut zure Semearen pasio ta eriotzagatik, eta zure dolore guztiakgatik. Amen Jesus.